

Goierri taldea

312. zenbakia 2006ko abenduak 15

ARRE, ARRE ASTOTXO



Zure bideoak DVD ra

Fotoetxen

3 egin ➡ 2 ordaindu

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)


A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

R.P.S.:32/04



GABON ABESTIEN BILDUMA HITZAREKIN

Goierriko ahozko tradizioetik jasotako gabon kanten liburuxka osatu du HITZAK, abesti berriagoekin batera

Ahoz aho iritsi den literatura tradizioa da gabon abestiena, euskarak beste euskarriarik ez zuen garaian arlo askotan gertatu den bezala. Urtean behingo erabilera izanagatik ere gogotik sustraitu dira Goierriko gizartearen kanta zahar-

rak, hizkuntzaren berpizkundearekin batera eskolen bidez zabaltzen diren berriagoekin batera.

Orokortasunaren garai honetan, Olenzero joan zaigu eta Hator, hator galdu ezin ondoan, gaur egun horrenbeste en-

tzuten ez diren beste kanta batzuk ere bildu ditu Goierriko Hitzak liburuxka honetan. Herri jakinetan gabon giroa islatzeko aspalditik erabili dituzten hitzak dira, galbidetik salbatzeko ikertzaileek idatziz jarri dituztenak.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

6. Iritzia: Inazio Usarralde.

8. Aholkua: Konpartitutako zaintza.

10. Kate motzean: Andoni Eskisabel.

12. Iritzi bilketa: Zer espero duzu 2007an bake prozesuaren inguruan?

22. Elkarrizketa: Alejandro Aldanondo, Kongon misiolari.

28. Erreportajea: Gipuzkoako astozale elkarte.

32. Elkarrizketa: Drindots, 25 urte plazaz plaza.

38. Elkarrizketa: Joxe Ugarteburu aizkolaria.

44. Gazte leku: Garazi Lorenzo igerilaria.

48. Mundutarrak Goierriin: Ordiziako Haur Txokoa, haur iritsi berrien harrera lekua.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Beasaingo tabernarien partetik Eguberri zoriontsuak guztioi!



Zaldizurreta Kalea

BEASAIN



BEASAIN



TABERNA

Zaldizurreta kalea
BEASAIN



beasain

BARANDIARAN *Taberna*

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

J.M. Iturrioz, 7
☎ 943 88 92 10
BEASAIN

NAGASAKI
Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67 J. M. Iturrioz **BEASAIN**

ARRANO
TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak
Eguerrietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12 **BEASAIN**



LOINATZ

Taberna - Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07 Nagusia, 27 **BEASAIN**



Basakana

Gilo aldia eta
Pintxo goxoak

Iturrioz, 11 beasain



Edaritegia **Jar** *Kafetegia*

Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81
BEASAIN

KULSKA

LURRAZPIKO
JAIA !!

ARANA, 1
☎ 943 88 93 88
BEASAIN



PUB

ASTI


Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 **BEASAIN**





Ordiziako Tabernarien partetik

Eguberri zoriontsuak guztioi!





Inazio Usarralde

**Bertso eskolara
doan haurrak
bizkuntza
modu
jolasgarrian
lantzen ikasiko
du eta ia
oharkabeen
aberastuko du
bere euskara.**

Bizi-eskolen artxipelagoa Goierriin

Joan den azaroan gogoeta jardunaldiak egin ditu Zarautzen Euskal Herriko Bertsozale Elkartek iraganaz, orainaz eta geroaz hizketan. Izan ere, 20 urte badira urteak edozein erakunderentzat ikusmira pittin bat jaso eta egindako bideari erreparatzearekin batera etorkizuna ikuskatzen hasteko. Denok gogoan izango dugu emozioz oraintxe urtebete Barakaldon bizi izan genuen BECekada. Baina, horretara iristeko Bertsozale Elkartek gogotik ahalegindu behar izan du, nahiz boladetan oso bide samurra ez duen izan. Dena dela, zorionez, denborak gauzak bere tokian jarri ohi ditu eta edonor ikusiko duzu gaur egun harro Bertsozale Elkarteko kide delako eta hori zerbaiten seinale bada, badenez.

Arestian aipatutako gogoeta saioan bertsolaritzaren alderdi nagusiak izan genituen mintzagai: bertsogintza, transmisioa, ikerkuntza eta elkartearen antolaketak. Ni gaur transmisioari buruz hitz egitera noa eta proposamen apal bat luzatuz amaitu nahi dut.

Tira ba, ezer baino lehen argitu dezagun zertaz ari garen transmisioaz ari garenean: zehazki, bertsoaren eta bertsolaritzaren ondarea hurrengo belaunaldiari pasatzeaz, transmititzeaz ari gara. Hori egiteko bi bide nagusi daude: irakaskuntza arautua (eskola ordutan, alegia) eta eskola orduz kanpoko bertso eskolak. Lehenbiziko bidea nahikoa finkatuta dago, baita Goierriin ere! Gaur egun ikastola eta ikastetxe ugari ari dira ahozkotasunaren proiektuan murgilduta. Bigarren bideari dagokionez, hor dugu Ordiziako Argi Berri elkarteak bultzatu, kudeatu eta datorren urtean 25 urte egingo dituen Goierriko Bertso Eskola: ikasturte honetan bi talde ari dira. Nik dakidala Goierriko gainontzeko herrietan ez dago beste talderik eskola orduz kanpo ahozkotasuna lantzen ari denik.

Ederki, eta zertarako behar dugu bertso eskola? Haur guztiak bertsolari egin

behar al ditugu orain? Ez ba, ez da hori nire asmoa inondik inora, ez horixe! Lehen aipatu ditudan Zarauzko jardunaldietan esan zirenetatik haxe gelditu zitzaidan gogoan: bertso eskolak bizi eskolak dira. Zergatik? Ba, hasteko, bertso eskolan haurrek eta gaztetxoek bertsoaren barruko tripak ezagutuko dituztelako, jakina; eta dudarik gabe, horietatik guztietatik bakan batzuk lortuko dute bertsolari izatea. Baina ez denek, eta hori hasterako ere badakigu. Baina, beste guztietatik biharko gai jartzaileak, bertso epaileak, antolatzaileak edota, besterik gabe, biharko bertsozaleak atera daitezke.

Ez hori bakarrik ordea! Bertso eskolara doan haurrak hizkuntza modu jolasgarrian lantzen ikasiko du eta ia oharkabeen aberastuko du bere euskara. Gainera, talde giroan gozatzen ikasiko du. Horrekin batera, edozein gairen inguruan iritzia ematen trebatuko da eta aldameneko entzuten eta errespetatzen ikasiko du. Azken hau, nire ustez, bertsolaritzarekin edo kulturgintzarekin baino gehiago herrigintzarekin lotuago dago. Ez dut uste gaur egun jarduera asko daudenik gure hizkuntzari arnasa emateaz gain, edozein gairi buruz iritzia ematen eta aldameneko errespetatzen irakasten dutenik. Eta hori guztia taldean gozatuz, gainera.

Hau dela eta, dei egin nahi dut Goierri osoan bizi eskolen artxipelagoa osa dezagun. Horretarako, egun dagoen Goierriko bertso eskola bultzatu, indartu eta zabaltu behar dugula iruditzen zait. Izan ere, bertso eskolak bizi eskolak direla sinesten badugu Goierri biziberritzen ariko baikara, geure neurri apalean. Eta hori egiteko urtean errotonda edo biribilgune horietako bat kostatzen dena baino gehiago ez da behar.

Goierriko bertso eskolak 25 urte beteko ditu datorren urtean: helduko al diogu 2007an erronkari?



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 43 01



KARROZERIA



GAES

Entzumen Zentruak

Etor zaitez!
ENTZUMENAREN
AZTERKETA
DOAN!

GOIERRIRAKO ZENTRO BERRIA

Centros
Auditivos

GAES



R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN

MULTIOPTICAS

orain arte: **39€**



Gabonetako
preziosa

14€

Gabonetako

opariak

orain arte: **85€**



Gabonetako
preziosa

59€



orain arte: **130€**



Gabonetako
preziosa

96€



orain arte: **75€**



Gabonetako
preziosa

49€

J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G. Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.

Seme-alabak dituen bikote batean gurasoen eginbeharrak elkarbanatzen dira: ez kontzan zehar seme-alaba amankomunak elkarrekin edukitzen dira, bi gurasoek horien zaintza egikaritzen dute. Baina banantze edo dibortzio bat gertatzen zenean, orain arte seme-alaben zaintza guraso bati esleitzen zitzaion, gehienetan amari, eta bestearentzako bisita-erregimena ezartzen zen, bi asteburutan behin eta eskolako oporren parte batean umeekin egon zedin.

Konpartitutako zaintzak ahalbidetzen du banantze edo dibortzioaren ondoren bi gurasoek beren seme-alabak hezitzen jarraitzea; honela umeek ez dute guraso-etako inor galtzen zaintzaile aktiboaren paperean. Asmoa da umea eta gurasoen artean elkarbizitza egotea, eta ez "bisita" soil. Honela lortzen dena da bi gurasoek seme-alaben garapena eta heziketan partehartze aktiboa izatea, eta beraiekin elkarbizitzea.

Bi gurasoekin ematen da elkarbizitza, modu berdinean; seme-alabek antzematzen dute ez dutela guraso-etako inor galdu, eta beraiekindik gertu egoteko gurasoek egiten dituzten ahale-

ginak ikustea onuragarria da umeen autoestimurako. Honela gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzen da.

Baditu bere desabantailak ere, adibidez bi etxetara egokitu behar izatea (edo hirutara, gurasoak badira umeak geratzen diren etxera mugitzen direnak). Etxe bakoitzak bere ohiturak ditu, bere arauak, bere ordutegiak. Umeak etengabe ohitura ezberdinetara egokitu behar dira, heziera ezberdinetara.

Arazo praktikoa eta logistikoak ere mahaigaineratzen ditu, umeen bizitzaren hainbat alor koordinatu behar direlarik: eskolarako garraioa, zaintzailea, jantzien antolaketa...

Konpartitutako zaintza-aren aukerak mugagabeak dira, interesatuen ingurua-aren arabera era guztietako konbinaketak egin daitezkeelako. Adibidez:

A. Aste bete baino epe laburragoko txandaketa, baita egunekoa ere, oso adin txikiko umeen kasuan. Baita hiru egun t'erdikoa guraso bakoitzarekin, umearen adinaren arabera.

B. Aste beteko txandaketa. Aste osoa guraso bakoitzaren etxean. Gurasoen

egoitzak elkarrengandik gertu egonez gero, nola-baiteko adineko umeen-tzako erosoia izan daiteke.

C. Hamabostaldiko txandaketa. Umea hamabost egunez guraso bakoitzarekin bizi da, eta bestearekin asteburu osoak igarotzen ditu, baita arratsalde bat edo bi astean zehar ere.

D. Hilabeteko txandaketa. Umeak hilabetea igarotzen du guraso bakoitzarekin, eta bestearekin asteburu osoak zein arratsalde bat edo bi astean.

E. Gurasoen txandaketa. Umeak familiaren egoitzan geratzen dira, eta gurasoak dira horren erabileran txandakatzen direnak. Zalantzarik gabe, modalitate honek lankidetzarako jarrera behar du gurasoengandik.

Konpartitutako zaintza-kon modalitate bat edo beste aukeratzean, erabakiorrak izango dira gurasoen lan-ordutegia, euren egoitzen arteko distantzia geografikoa, euren baliabide ekonomikoak, seme-alaba kopurua eta euren eskola-ordutegia, eta abar.

Konpartitutako zaintza-kon modalitaterik onena izango da gurasoek adosta-



Monika Larrañaga
Gertu aholkularitza

*Umeen
bizitzaren
hainbat alor
koordinatu
behar dira.*

sunez aukeratzen dutena, zalantzarik gabe. Honek modu egokian funtzionatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da banatutako zein dibortziatutako gurasoen arteko komunikazio ona. Beraz epaileek hura onartzen dute gurasoek adostasunez eskatzen dutenean, baldin eta uste badu aukeratutako modalitatea adin txikientzako onuragarria dela.

Oiarbide

Oinetakoak

Eguberri zorientuak denoi!

San Inazio, 14 Laskurain, 12
☎ 943160434 ☎ 943653786
BEASAIN **TOLOSA**

Eraikin
egin-berrian,
120 m²-ko
lokal komertziala
salgai.
Ataun erdian,
Udaletxearen
aurrean.

652 775 741

YARZABAL, S.L.

**Zurgindegi
mekanikoa**
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: **943 88 90 17**

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Kalitatezko 0-18 Hezkuntza Integrala leantza edua

Jangela Garraioa
Ordutegi zabala Trikitixa eskola
Musika eskola Abesbatza
Guraso eskola

Hizkuntza Eskola
Ingeles udalekuak
Trinity College London azterketak

Q
Euskadi
2 0 0 3

San Benito

Zorionak eta Urte Berri on!



Zorionak eta urte berri on!!

SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2007an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. *Traste zaharren egunean atera behar dira.*



www.sasieta.net



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Herritarrek gero eta gehiago erosten al dituzte aurrez prestatutako janariak?

Ez dakit gehiago saltzen den. Hiru urte daramazkit eta berdintsu saltzen dela iruditzen zait. Inguru honetan jarri zen lehenengoa izan zen. Hasieran, ezagutu arte, deskonfiantza azaltzen zuen jendeak, baina behin ikusi eta probatu eta gero, gustatu bazaie errepikatu egiten dute. Hori produktu berri bat sartzen dugunean nabaritzen da. Saiatzen gara beti produktu berriak sartzen. Orain adibidez, marisko fritoak egiten hasi gara eta hasieran gutxi saltzen dira baina probatzen duenak errepikatu egiten du.

Aurrez prestatutako hainbeste janari erosteko, jendea gero eta alferregoa al da?

Nik alferra baino gehiago esango nuke, denbora gutxiago daukagula eta jakin ere ez dakigula. Jende asko dago sukaldean ikasi ez duena.

Zein motatako janariak prestatzen dituzue?

Denetik, hasi eta bukaeraino. Sarrera hotzak eta beroak. Gaur egun gero eta gehiago jaten da plater bakarra. Lehen, denbora gehiago hartzen genuen jateko. Jateko era ere aldatzen ari da. Niretzat denbora da arazoa: ez dela denborarik hartzen mahaian egoteko. Beste edozein gauzari ga-

“Jendeak ez du denborarik hartzen otorduak prestatzeko, ez eta jateko ere”

rrantzia gehiago ematen zaio.

Gabon egunetarako janari bereziagoak prestatzen al dituzue?

Beti prestatzen da zerbait berezia. Batez ere marisko gehiago sartzen dugu.

Zein da zuen berezitasuna?

Siglo XX tabernako semea naiz eta harategiari ere hala jarri diot izena. Nahita mantendu nuen izena, Siglo XX-n jan zitekeena hemen aurki daitekeelako. Siglo XX-ko espezialitatea, albondigak eta tripakiak ziren.

Gabon gauerako menu bat:

Txangurro pixka bat labean, txanpinoiak, txipiroiak tintan eta bukatzeko haragi pixka bat.

Edari bat:

Ardo beltza.

Zer eskatu diozu Olentzerori?

Orain arte bezala jarraitzea.

Eta Urte Berriari?

Berdina, 2006 bezalakoa edo hobea izan dadila 2007a.

Amets bat:

Hemen dauzkagun arazoak behingoz konpontzea, eta pake-pakean utzi gaitzela bizitzen.

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

IBAI ONDO
ARROZTEGIA

Altzariak neurritra
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea



Tel: 943 16 22 26 Faxe: 943 16 22 27
Zubizkitza 70-71W - LAZKAO
www.kemenkoz.com
r.p.s. zbki 348/04

Kemen kirol osasun zerbitzuak 10. urteurrena zurekin ospatu nahi du.



Gure zerbitzuak:

Esfortzu probak

korrika
oinez
txirrindan

Mediku azterketak

federatu fitxak

Kirol entrenamenduak

txirrindularitza kategoria guztiak
zikloturistak, MTB
korrikako lasterketak: popularrak, maratoiak...
duatloi eta triatloiak: negukoak, ironman-ak...
suhiltzaile oposaketak
argaltze -mantenitze planning-ak...

Dietak eta aholku dietetikoak

hautzaroan
haurdunaldian
menopausian
kirolean
gizentasunean
anorexian-bulimian...

Masaiak eta osteopatia

Podologia zerbitzua

azkazaletako arazoak
kailoak
gogortasunak
plantilak...



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON 2007



*Hainbat
goierritarren iritzia*

Zer espero duzu 2007an bake prozesuaren inguruan?

Bukatzeaz dagoen urte hau, bake prozesuaren hasieraren urtea izan da . 2007. urtean bake prosesuak aurrera egingo duen eta Euskal Herrian bakea lortzeko urratsak emango diren jakin nahian, azken batean zer nolako itxa-

ropena dagoen jakin nahian, hainbat goierritarren iritziak bildu nahi izan ditu GOIERRITARRA aldizkariak. Egunero albiste berriak izaten diren garaian, abenduak lehenengo astean bildutako iritziak dira hurrengo orrietan dituzuenak.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

ainaratzberria

HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Xabier Urteaga



2007a erabakigarroa izango da bake prozesuak aurrera egiten duen ikusteko. Urtearen hasieran alderdien arteko mahaia- ren inguruko albisteak izan beharko genituzke. Politikoak eseri eta gauzak adosten hasten direnean jarriko baita abian prozesua.

Eta maiatzean hauteskundeak.

Hiru gauza argitzeko balioko dute; lehena, ezker abertzalearen parte hartzearekin (kontrakoak gauzak gaizki doazela adieraziko luke) Hego Euskal Herriko benetako mapa politikoa marraztuko da. Bigarrena, Nafarroan UPN-CDN bikoaren gehiengo amaitu liteke. Hirugarrena, Espainian Zapaterok zenbaterainoko babesa duen ikusteko balioko dute hauteskundeak. Urte esanguratsua izango da. Zuzenean eta zeharka bake prozesuarekin zer ikusia dutenak zentzuz eta arduraz aritu daitezela. Jokoa asko dago eta.

Enrike Enparantza



Nik ere gehienok bezala ilusio handiz hartu nuen bake prozesua. Agian askok bezala baikortasun gehiegiz. Hasi zenean ematen zuen gauzak aurretik landuta zeudela, baina dirudienez eta orain denborak erakutsi digunez ezin esan hala zenik.

Horrelako prozesu bat nolatan hasi daiteke ondo lotu gabe?

Bi alderdiak benetan prest al daude bere eskakizunetan malguak izateko eta azkenetako iristeko? Nahi izanda ere ahalmenik ba al dute?

Hitz asko baina egitazko aurrerapausorik ez. Eta hau gutxi balitz trabak bi aldetatik eta atzetik bazterrak nahasten jendea franko. A ze marka!

Guk behintzat, herritarrok, badugu esperantza eta gehienbat beharra dena ondo joan dedin. Nire ilusioa da 2007an jaiotzen diren umeak, gure neskatxoak barne, Euskal Herriak bakea lortu zuenekoak izatea. Hala ote?

Jon Agirre



Itxaropentsua naiz eta itxaropenez hartzen dut gaia. Atzera bueltarik gabeko ataka batean gaudela deritzot, gizarteak bakea nahi duelako, Euskal Herriak bakea nahi duelako, eta etorkizunak bakea eskatzen duelako.

ETA. Su etenak atzera bueltarik izaterik ere ez nuke nahi, funtsean erakunde armatua hartutako erabakiekin konsekuentea izan delako, eta gaiak duen seriotasuna tarteko ezin daitekeelako gaur bai eta bihar ezezkoarekin ibili.

Talde politikoei dute beste giltzarrietako bat; norbere interesak ekidin behar dira, eta ez gainera epe motzera begira (bi-hiru urtera begira egon daitezkeen hauteskundeak helburu dituenak ezin du ulertu 50 urte barrurako izan nahi dugun herri motaren eraikuntza). Garrantzitsua da oztopo diren gizon-emakume politikariak alderatzea. Askok dira urte luzeetan hor ditugunak, eta lagundu baino gehiago traba egiten dutenak.

Gizarteak esan behar du zer garen eta zer izatea nahi dugun. Eta arriskua jendea lo zorroan geratzea da. Prozesuaren zutabeetako bat bada gizartea, partaide izan behar du, ez ikusle. Hori nork aktibatu ordea? Gaitasun haundia duten pertsonak badira, kultura, kirol, kazetaritza eta abarreko munduetan, eta aurrez suposatzen diegun gaitasun hori, behar den uneetan erakutsi egin beharko lukete.

Jose txo Zufiaurre



Denbora falta dela eta ezin dut gauza sakonik esan. Edozein moduz ere, beti bezala politikoei ez diet arreta handirik egiten, ez batzuei eta ez beste, baina idazpurutan irakurtzen dudana kontuan izanik, sokatiran dabilzala iruditzen zait. Ez dakit izkutuko elkarrizketetan zertan ariko diren, baina grabi ikusten da jendaurrean boto bila dabilzala. Beti bezala penagarria.



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

**OSINALDE
KARROZERIA**


IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

**Oriako Pasealekua, 20
B E A S A I N**

Ekaitz Goikoetxea




Luze doa, eta poliki. Baina, ibilitako bideak ez dezake atzera bueltarik onar. Luze joango da, eta poliki, eta behar baino maizago korapilatuko zaigu gainera; baina, zuri, niri, guztioi dagokigu, nork bere ekarpentxoak egin ez, hari muturrak askatzea. Batez prozesua ez baita sinesmen kontua; ez behintzat, sinesmen kontua bakarrik. Mahaiak behar ditu, eta aulkiak, eta belarriak, eta ahotsak, nor bere ñabarduretan katramilatu gabe, bakea egingo dutenak. Eta indarkeria sobera dago, indarkeriak gorrotoa, mina, ezina baino ez baitakar, bidea hesitu eta trabatzea. Keinuak behar dira, sorbaldak, biktimei euren mina arintzen, goxatzen, leuntzen lagunduko dietenak. Keinuak behar dira, pausoak, eragileak, presoak eta erbesteratuak lehenbailehen etxeratu daitezten. Alderdikeria eta taldekeria lagun txarrak dira biderako. AHOTSAK emakume taldeak lortu du, diferentzia guztien gainetik bat egitea, ispilu izatea, eredu. Eta nik ere izan nahi dut mahaikide, eragile, sorbalda, keinu, ahots bake-prozesu honetan.

Marian Bidegain



Esperantzaren leiho bat ireki zuten... su-etena! Ta? Kitto? Eta bakea? Zein bake-mota? Zeinentzako? Zeinek eman behar du hurrengo pausoa? Zuk eman. Ez, ez, zuk edota haiek. Geuk eman behar dugu, alajaina! Hitza eta erabakia euskal herritarrona da, ala? Elkarriketa eta negoziazioa dira egunen batean herri hau bere onera ekarriko dituenak. Luze joko du honek, horretan ia denok bat gatoz. Eutsi, beraz, eta ez etsi! ... esperantzaren leihoko zirrikitua ez diezagutela itxi!

Iñaki Mendiguren



Baikor? Ezkor? Borroka armatuarena bukatuko dela iruditzen zait, hemen eta orain ez baita eraginkorra; baina hori “euskal arazoaren” adierazpide bat besterik ez da, eta honi, oro har, konponbide asegarririk ez diot nik epe laburrean ikusten. Arazoa konpontzeko, Espainian (eta Frantzian) nagusi den kultura — euskal gizartearen zati garrantzitsu batean ere sakon sustraitua — aldatu beharko litzateke, eta ziur asko baita euskal abertzaleen helburuak planteatzeko modua ere, lurraldetasuna eta autodeterminazioa bezalako gaietan, adibidez. Baina horretarako beste bealaunaldi bat beharko da agian. Bitartean erregu bat politikariei: ez gaitatela herritar xumeok beren antzerkietan txotxongilotzat erabil, sarri dut-eta sentipen hori. Oraingoz, haize berri eta freskoa “ahotsak” bezalako ekimenetatik dator. Ai, gizonok ere apur bat emeagoak bagina, eta ez hain “matxoak”!

Manex Aranburu



Bizitza da bere horretan prozesua, bidea, eta hor norberaren gaitasuna, gizartearena, krisialdiak gainditzeko. “Prozesuan” inplikaturik gauden gizatalde ezezagun eta mugagabe honetan (espainiar, frantziar, euskaldun...) bake garaia iritsiko da, ez dago dudarik, bestelakoak etorriko diren lez, historiari, inguruko herriei so. Bake une hori noiz emango den eta ezagutuko dugun ez dakit, baina horren alde egiten bizitzeak bere horretan du saria.

Bakea, egungo egoera pairatzen eta sufritzen dugunon egarritik sortua beharko du izan. Gaurkoarekin, negoziaketa (lorpen) politiko kutsu horretan, nor baino nor kontuak eskatzen ibiliz, bake kultura batetik urrun, instituzio mailan “sorturiko bakea” genuke.


SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zia: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA





ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierri kalea

Tel.: 943 16 40 48 · Faxe: 943 16 47 03

20240 ORDIZIA

MEDIKU KOADROA

FAMILIAKO MEDIKUNTZA ● Natasa Vujic Dr. ● Mikel Ansa Dr. ● Jorge San Pedro Dr.	TRAUMATOLOGIA ● Ines Burutaran Dr. ● Jesus M^a Caminos Dr.	PSIKOLOGIA ● Montse Corghete
BARNEKO MEDIKUNTZA ● Javier Legarda Dr. ● Begoña Iñurrategi Dr.	ERREHABILITAZIOA ● Vanessa Bahun Dr. ● Maria Etxaniz Dr.	DIETETIKA ETA NUTRIZIOA ● Cristina Perez
NEUROLOGIA ● Juan Carlos Martin Dr.	UROLOGIA ● Jesus Mendibil Dr.	PODOLOGIA ● Ioana Arbillaga
ALERKOLOGIA ● Maria Mar Del Castillo Dr.	GINEKOLOGIA ● Irune Alzola Dr. ● Emilio San Pedro Dr.	FISIOTERAPEUTAK ● Eider Iturrospe ● Ainhoa Cupido
DERMATOLOGIA ● Conchi Tamayo Dr.	ORL (sudur, eztarri, belarri) ● Luis Mutio Dr. ● Julio Igartua Dr.	ERIZAINZAN DIPL. (ATS) ● Marivi Beriain ● Arantzazu Balerdi
PEDIATRIA ● Juan Jose Idoeta Dr.	OFTAMOLOGIA (begiak) ● Mertxe Zabaleta Dr. ● Alejandro Amias Dr.	ODOL eta PIXA ANALISIAK HORTZETAKO ERRADIOGRAFIK ERRADIOGRAFIA OROKORRAK
PSIKIATRIA ● Loudes Del Campo Dr.	KIRURGIA OROKORRA ● Juan Kerejeta Dr.	EKOGRAFIK (3D eta 4D) MAMOGRAFIK
KARDIOLOGIA ● Alberto Izagirre Dr.	ENPRESEN AZTERKETA MEDIKUAK	GIDATZEKO ETA ARMENTZAKO AZTERKETA MEDIKUAK

Hitzordua aldez aurretik
943 16 40 48

Aitor Calvillo



2006ko martxoan itxaropentsu jarri gintuen ETA erakundeak luzatutako su-etenak. “Tira, politikoei hainbatetan eskatutako baldintzetako bat bete dik talde armatuak” nire artean, “agintean daudenei zegokiek oraingoan pausua ematea”. Bada, gaur arte. Hitz asko eta aurrerapenik ‘apenas’. Zenbaitzuk badirudi su-etenen aurreko egoeran hobeto moldatzen direla eta horri eutsi nahi diotela. Prezioa edonolakoa izanda ere! Eta honek itxaropenetik ezkortasunera jauzi egitea dakar berarekin. Aurrera egiteko gakoak mahai gainean jarriak daude aspaldidanik. Talde armatuak eman du eman beharreko lehen pausua. Noizko politikoen aurrerapausoa? Mesedez, ez itzazue zapuztu Euskal Herritarron itxaropenak!

Patxi Zubizarreta



Galdera sakon honi poetikoki eta labur erantzun niezaioke, Xabier Unzanteren ipuin baten bidez, esate baterako: behin batez, hiru neska~mutiko elkartu ziren antzinako Tuteran; primeran pasatu zuten, hurrengo jai egunean berriro ere azokan elkartzea erabaki zuten (bitxia da, baina euskarazko azoka hitzak arabierazko zoco hitzean —merkaturatua— du oinarri); denak ala denak joan ziren, baina ez zuten lagunik topatu; beste batean, txiripaz berriro ere elkartu, eta hala jakin ahal izan zuten Ali mutikoa musulmana zela eta ostiralean, hau da, musulmanen jai egunean joan zela azokara; Miriam judua zela eta larunbatean agertu zela; eta Joanes, azkenik, igandean, kristauen jai egunean; erabaki bat hartu zuten orduan: aurrerantzean norberaren eta elkarren jai egunak ospatuko zituzten, beraien asteak hiru jai egun izango zituen... Nik uste halako helburua hartu behar genukeela orain arteko porrota gainditzeko, bestelako bizigiroa lortzeko.

Lierni Elortza



Zer espero dudan ez dakit nahiko nukeena bai, 5 hitzetan: Gutxiago hitz egin, gehiago egin.

Politikariek esan-erantzun-adierazi-ihardetsi-aldarrikatu-salatu...etan alfer alferrik gastatzen dituzten energiak bide eraginkorretan erabil ditzatela. Diskurtso errepikakorrez aspertuak ditugun belarriak ekintzen kontaketa gustura entzungo dutelakoan nago. Ea ba 2007an den azkenean!

Iñaki Murua



Aurrera egitea nahiko nuke eta uste dut badagoela premia galanta eta ez hainbat eta hainbatek sufritzen duenagatik bakarrik, baizik eta, badelako garaia herri hau aitzakia modura erabili ordez, herri eta beharrak dituen gizarte modura har dezagun / dezaten.

Nik uste era, modu eta alde guztietako bortizkeriarik eza, oso —oso bide korapilatsua egin ondoren ikusiko dugula eta orduan has gaitezkeela, herri honetan bizi garen biztanle guztiok, elkarbizitza aberasgarri baterako oinarriak jarriko dituen eztabaidan.

Eztabaida honek ekarriko du geroa eraikitzeko bidea. Eta hau, kultur ikuspegitik begiratuta, euskara sendotzea eta lehentasuna izatea denontzat (baita abertzale omen diren batzuentzat ere) litzateke, horretarako, hezkuntza eredu euskalduna eta bakarra adostuz. Zer eta nor izan garen ulertu behar dugu denok, bakoitza besteentzat zer garen jakin eta zer izan nahi dugun ulertarazi. Hau elkarri entzunez bakarrik lortzen da.

Nire ustez, egungo politika eta politikoak ez dira adibide ereduagarriena ematen ari goian aipatua lortzeko, beraz, gizarte mugimenduen zuzeneko esku-hartzerik gabe ez dugu benetako aurrerapausorik lortuko.

GERRIKO LIBURUDENDA



☎ 943 88 65 00

Faxa: 943 88 7971

gerrikoliburudenda@euskalnet.net

Elosgi 16 LAZKAO

**Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!**

Xikel

Eguberri on!

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600
Urdaneta, 41

ORDIZIA

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezzo berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



*Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA



MUTILOKO UDALA

*Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!*



Saroi Jauregi



Hilabete dextente joan dira ETak su-etena iragarri zue-netik, eta gure eguneroko bizi-moduan ez dugu aldaketa handirik nabaritu 2006an, baina, hala ere, nik ez dut itxaropena galdu. Pentsatu nahi dut sukalde-lanak martxan jarraitzen duela, kontra-koa dirudien arren. Euskal herritarren ikuspegia eta hitza erresetatzea izango da, nire ustez, gatazka konpontzeko gakoa, eta batzuk ez ditut ikusten horretarako oso prest. 2007an egoera pixkanaka argituko dela espero dut, edo hori eskatzen diot behintzat nik urte berriari. Eskatzen hasita, behingoz eragozpenak gainditu eta elkarrizketa-mahaiak fundamentuz lanean hastea eskatuko nuke. Amesten hasita, sei herrialdeko HERRI bat amesten dut, bakean eta burujabe bizi dena.

Pello Barandiaran



Euskaldunok bake prozesuak eta normalizazio politikoak aurrera egin dezaten nahi dugu. Inork ez du atzera egin nahi. Herritarrak ordezkatzeko dituzten alderdi politikoek ahailekin berezi bat egin behar dute adostasunetara iristeko.

Bakea lortzeko lehenik eta behin oinarriko etika eta gizalagea nagusitu behar da jokabide

politikoan. Indarkeria moeta guztiak alde batera utzi eta gehien sufritzen ari direnei babesa eskaini, lagundu eta auzia gizakoitzeko neurriak hartu. Benetako laguntza, ez hitzekoa soilik.

Bestalde, ezinbestekoa da alderdien artean adostasun politiko bat eskuratzea herri honen erabakitze eskubidearen inguruan. Herri honen etorkizuna sendotzeko oinarriko egitura politiko adostu bat behar dugu.

Azkenik, herritarren partehartzea ahalbideratu behar da guztion artean bakearen eta normalizazio politikoaren aldeko apostua atzerabiderik gabe uzteko.

Ion Telleria



Guzti hau hasi zenean urrun ikusten zen hauteskunde ziklo berri bati aurre egiteko prestatzen hasi dira alderdi politikoak. Badirudi bakoitzak prozesua, berari bozka gehien eragingo dion momentu batean helarazi nahi duela hauteskundeetara.

Zoritxarrez, bide hori hartuko duela dirudi eta beraz, urte hasieran oinarri ona jarri beharko dute, baldin eta denbora gutxian honek "krack" egiterik nahi ez badugu. Beldur naiz, ordea, beti bezala alderdi interesak aterako direla garaile eta bozka hutsak epaile. Beraz, esperantza bakarra gudan izan dezaket. Esperantza bakarra herritarrak kalean, erabakitze eskubidearen eta gure herriaren aitormenaren defentsan borrokan aritzea da, horrek jarriko baitu atzeraezineko oinarria, eta horrek baldintzatuko alderdi interesen aldaketa. Guk egin ezean, alferrik izango da gero betikoari errua botatzea. Konponbidea kontu serioegia da alderdi politikoen esku uzteko.

Garbiñe Mendizabal



Bake-prozesua, ez dihoa nahi dugun abiaduran, ezta nahi ditugun asmoen norabidean ere.

Gehiegi hitz egiten ari da mundu guztia eta beste diskrezio bat beharko litzatekeela uste dut.

Bi mahai aipatu izan dira, eta bat martxan dela dirudien arren, bestea, politikoa, ez dela hasi ematen du. Lehenbailehen hastea premiazkoa da.

Baina alderdi politikoek beraien lana egin behar badute ere, herritarren esku ere lan asko dago egiteko.

Ezin da hainbeste urtez desio izan dugun egoera alferrik galtzen utzi. Tratatuta dagoela ematen duen arren, ahailekin egin beharko litzukete erantzukizun handiena dutenek. Itxaropenez beteta nago, eman diren urratsak nahikoa ez izan arren, itxaropena izan nahi dut, ez diot etsipenik eman nahi hasi berri den prozesuari.

ttipi - ttapa

umeen arropa denda


Chipie
Confetti
Levi's

Ikks
Jean Bourget
Clayeux

Pijamak: Arthur

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901

AZURMENDI HARATEGIA



Victor Mendizabal, 2

☎ 943 88 47 65

ORDIZIA

San Inazio, 6

☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28

BEASAIN

Azaroaren 15etik abenduaren 24ra



©Disney

Ilusioak ★ Sorluz



Carrefour 

Carrefourekín posible da

www.carrefour.es



Jon Aizpurua



Itxaropentsu naiz. Uste dut urte ona izango dela 2007a bake-prozesuarentzat. Bide luzea eta zaila izango da, ikusi besterik ez dago Ipar-Irlandan zenbat urte daramatzaten, prozesua hasi-eten-gelditu-berrirori segi. 'Gure' bake-prozesuak ez du atzerabueltarik. Garai berri batean bizi gara aspalditxoa: ETaren garaia amaituta dagoela uste dut eta Gernikako Autonomi-estatutuarena ere bai. Ez dira maila bereko gaiak baina bi garai horiei, ahalik eta amaierarik onena ematen saiatu beharko genuke. Gizarteak zuzeneko parte-hartze handiagoa behar du bake-prozesuari bultzada emateko. Bi traba ikusten ditut: batzuk uste dute **bakea eginda dagoela** (bereziki hilketarik ez dagoelako) eta beste batzuk berriz **hau besterik ez al da?** (lorpen politiko zehatzak lortu ez direlako). Hauteskundeei begira daude alderdiak, Espainiako Gobernuak eta ETak ahuleziarik ezin dute agertu. Bake-prozesua luze joango da, bizikidetzeta eta adiskidetzeta oraindik luzeago. Ez dut uste **esperantzaren leihoa** ixten utzi dezakegunik.

Rufino Iraola



Espero dut diskrezio handiagoa. Txoriak ere basoko barkadadera erretiratzeko dira, arrautzak errun eta kumeak ateratzera. **Espero dut** Espiritu Santuak Espainiako gotzainei eta PPri argi pixka bat egitea. **Espero dut** prentsak arduratsuago jokatzeta. **Espero dut** biktimek ulertzea bi gauza direla desagrabiorako esku-bidea eta politikan interferitzea. **Espero dut** ETak eta bere inguruak garbi ulertzea kale borroka eta arma pilaketa oso faktore negatiboak direla bakearentzat. **Espero dut** Euskal Herriaren borondatea errespetatu behar dela diotenek, behingoz, borondate hori errespetatzen hastea, negoziazioaren zain egon gabe. **Espero dut** bakoitzak duen pisu politikoaren arabera aritzea denak. **Espero dut** inork ez espero izatea aurrerabide espektakularrik, baizik hesate txiki batzuk irekitzea. **Espero dut**, batez ere, atentaturik ez izatea

Tere Irastortza



Ez diogu inori bakerik eman nahi, ez dugu nahi inork bakean utz gaitzan.


Bakean bizi nahi dugu.

Ez dakit zer azpimarratuko nukeen gehiago, eta zer aurrena.

Bakea nahi dugu bizitzeko eta bizia nahi dugu bakerako. Bakea eta bizia zor dizkiogu askatasunari.


Baina, batik bat, ez dut uste guk zain egon behar dugunik. Bakea ez da etorriko: bakea ekarri behar dugu. Herritarrok egin behar dugu bakerako lan handi bat, dena alderdien eta legeen sigi-sagaren esku utzi gabe... zeren eta hein batean alderdiek ere badituzte herritarrok ez ditugun interesak, eta gobernatu nahi gaituen legedia bera da askatu beharreko korapiloetako bat.

Joxe Ramon Agirre



Zaila da aurrerapenik egitea 2007. urterako, zailagoa azken urte hauetan bake nahi hori gure ahotan egon arren, dena, itxaropen guztia bat batean amildetara joan zitzaigunean. Sortu du bai, prozesu honek ere itxaropen gozoa nere baitan eta esan ohi izan diot nere buruari "oraingoan bai". Baina... ez dakit.

Bakean bizitzea esaldi liturgikoa baino gehiago da, ariketa bat da. Bakea entzutea da, errespetua da, albokoa ezberdina dela ulertzea da. Balio hauek eraikitzen dute neurri handi batean bakea. Euskal Herrian bada ugari, bai, bakerik nahi ez duenik, entzun nahi ez gaituenik, gure aldarria lokaztu nahi duenik, ulertu nahi ez gaituenik, denok terroristatzat hartu nahi gaituenik. Gure erronka etorkizunerako eta ondorengo belaunaldietakoekin garatzeko hau da: Euskaldunok gure izaera herri bezela dagokion eskubideak eskatzearekin, ez dugula etsaitzat hartzen inongo herri ez gizabanakorik. Bereizketa ez da muga. Bake hori ez dadila izan heriotz eta garraxi gehiagoren osteko bakea.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

GOENAGA



Eguberri zoriontsuak denoi !

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Zorionak eta
urteberri on!!!*

*Aho finen
gozamenerako...*

Gure kartak otordu
landuak eskeintzen
ditu non zapore eta
texturak aurkezpen
harmoniosuekin
konbinatzen diren...



#faktore



ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!!

GARBITASUNA ETA DIZDIRA NAGUSI GAINAZALEAN

GARBIKETA ZERBITZU OROKORRA

BULEGOAK | LANTEGI ETA TAILERRAK | GARAJEAK | ATARIAK
ETXEBIZITZAK | BIZILAGUN KOMUNITATEAK | ETABAR.

Zepai, 5A | 20213 Idiazabal | M 637752571 | T 943187168

#faktore

Alejandro Aldanondo
Kongon misiolari:

“Lezioa ematen digute,
oso gutxi erekin nola bizi
daitekeen, umoretsu”

Duela 35 urte, 1971. urtean, oraindik ikasketak bukatu gabe, joan zen lehenengo aldiz Alejandro Aldanondo Kongoko Errepublika Demokratikora. Ikustera joan, bertan gelditu. “Harako egina nago”, dio idiazabalda-

rrak. Apaiz lana betetzeaz gain, ganaderitza proiektuan bete-betean sartutako dago. Bi munduen arteko desberdintasuna gero eta handiagoa delakoan, gero eta bortitzagoa egiten zaio Euskal Herrira itzultzea.



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

**9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA**

Popokabakako eliza zabalteko proiektua besapean duela etorri da Euskal Herrira laguntza bila. Eliza, moja etxea, eskola, anbulatorioa eta maternitatea eraikitzeko asmoa daukate. Abenduaren 10 aldera Kongoko Errepublikak Demokratikora itzultzekoa zen Alejandro Aldanondo.

Kinshansa hiriburutik behera, Angolako muga aldean bizi da idiazabalدارra. Ballaka tribua eta kiaka hizkuntza hitz egiten duten eremuan mugitzen da Alejandro Aldanondo. Popokabakan dago elizaren zentroa nagusia. 4 jesuita daude bertan Alexandroekin batera: Guatemalako bat eta bi belgiar.

Goizeko 6etan meza emanez hasten du eguna idiazabalدارrak. Hortik aurrera, lan ezberdin ugari egiten ditu. "Denetik egiten dugu pixka bat. Afrikan apaiza ez da hemen bezala, apaiza elizan, han goizean goizetik mezarekin hasten gara baina gero beste eginkizun batzuk izaten dira. Batzuk irakaskuntzan, zubiak eraikitzen, ni ganaderitzan...".

Bideo proiektorea hartu eta pelikulak ematen ere aritzen da Alejandro. "Telebista kaskar baten bueltan, 1.500 haur eta gaztetxo elkartzen dira begiak zorrotz. Gehienak, akziozko pelikulak jartzen dizkiegu".

Nola erabaki zenuen mi-



Kongoko baurra Goierritik bidalitako esne poltsarekin.

sioetara joatea?

Garai batean bidali egiten zituzten, baina nik esan behar dut alde horretan, beti nahi duguna egin dugu. Nahi izan nuelako joan nintzen. Batzuk frenatu nahian ibili ziren, euskalduna nintzela, euskaraz nekiena... baina txikitandik horretara nolabait behartuta nengoen. Jaberren ikasi nuen batxilergoa. Azkenean, joan eta ikustea erabaki nuen. Joan eta ikusi, joan eta ikusi, eta geratu. Geratzea erabaki nuenean, ganaderitza kontuekin hasi nintzen. Apaizgintzako ikasketak ere bukatu nituen eta 1979an han gelditu nintzen.

Kongoko Errepublika

Dominikarrera joan zinen lehenengo aldian zer sentitu zenuen?

Hori ez da sekula ahanzten. Elizara sartu eta txori bat zegoen, ume bat negarrez eta amak bularrean jarri eta ixildu egin zen... hango gozain bat Mercedesarekin... gu gazteak ginen eta harrituta gelditu ginen. Aspaldiko gauzak dira baina beste mundu bat da. Pertsonaren azal beltza irudi bat da, beste ohitura, beste jateko modu baten irudia da.

Azala ere belztu zaizu ia orduan.

Azala belzten da, baina nik uste dut batez ere ohitu egiten dela. Nik adibidez, horta ez dut batere maite. 10

gradutik behera gaizki ibiltzen naiz. Hango beroarekin ohituta nago. Hango erritmora ere ohituta nago. Eguerdian, bero handiena denean siesta txiki bat egiten dugu gaua luzatzeko. Beste era batera bizi naiz. Zuek hemen oso presaka bizi zarete, pentsatzeko asiritik gabe. Hori bai, lan eta lan, asteburuaren eta oporren zain. Han beste muturra da. Emakumeek lan egiten dute, egunero egin behar dute gainera, egin beharra daukate bestela ez da jaten. Lurgintzan aritzen dira. Gizonak terrenoa garbitu eta mandioka emakumeak lantzen du. Belar txarrak kendu, zuztarrak atera, uretara eramanez azala kentzeko, lehortu, xehetu... eta ogi antzeko bat egiten du, ondoko kondimenduekin batera jateko. Otordu bakarra egiten dute. Garai batean nik uste dut beste era batera zela, baina gaur egungo kezka bakarra da, gaur zer jango dugu. Hemen beste muturrean gaude: produkzioa, produkzioa eta produkzioa da arazoa saltzea da. Han berriz, arazoa, produkzioa da. Han emakumeak egiten edo sortzen duena jateko da. Saltzeko ere pixka bat, baina ez asko. Oso bide txarrak daude. Kinshasha hiriburutik 500 kilometrora gaude eta han dena behar da jateko, 5-6 milioi bizi baitira. Beraz, Kinshashara joan nahi ba-

Gabirian

(Alegia auzoan)

Ormaiztegiako Irizarren parean

Eraikuntzan

Etxebizitza bikainak:

sotoa, behe solairua, 1. solairua

3 logela, 3 bainugela, terrazak, lorategi zabala, txokoa, garajea...

Eraikuntza berritzailea eta lehen mailako materialak

ZUZENeko SALMENTA



Bizitza bakarreko 6 etxebizitza, binakako blokeetan



INFORMAZIOA ETA SALMENTA: 943 16 10 32 - 652 77 57 41



xetai

www.xetai.net

Armairuak · Altzariak · Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN

Lutondo Ganaderitza proiektua

Lutondo Ganaderitza proiektua martxan jarria du Alejandro Aldanondok Kongoko Errepublika Demokratikoan. “Baserritarra izanda, joan eta berehala ikusi nuen ganaderitzarako bazela han aukerarik. Sabana da eta hango belardiak ikusita uste duzu hemengo belardi aberatsak direla baina hori ez da horrela. Hango belardiak eskasak dira, urtero sua ematen dielako bazterrak eta garbitzeko. Guk ere belardiak puskaka-puskaka erretzen ditugu, ganadua beti belar goxoarekin izan dadin”.

Afrikako behiak, dama deritzana, hazten eta saltzen dituzte. “Behi txikia da baina harako egokituia. Urtero normalean txahala egiten du eta hango gaitzertara egokitu da”, zehaztu du idiazabaldarrak.

1999an kooperatiba sortu zuen bertako jendearekin. “Guk koadro teknikoa zuzentzen dugu eta beraiek eskulana jartzen dute. Etxeak eraiki, hesiak konpondu, sua... hilean hiru egunetan, 4 ordu lan egin behar dute. Bakoitzak bere behiak ditu eta behi horiek banku modura izaten dira. Hiru behi baldin badituzu dirua aurreratzen zaie. Hau da, behiak baldin badituzu mailegua emango dizue. Mailegua askotan, eskolarako edo osasunerako erabiltzen dute. Behi hori hazi ahala, balorea igotzen ari da”, gaineratu du. Hori bai, lehenik eta behin, ehiztari mentalitatea aldatzen lan egin behar izan du.

Momentuz ondo daokie proiektua. “Ganadua oso ondo baldin badabil, dena ondo ordaintzen da. Gastuak nahikoa handiak dira: hemen alpapa eta trefarekin ganaduak apenas



behar duen beste ezer. Pentsua ematen badiozu hobe, baina ez dago mineralik eman beharrik. Kongon alderantziz, mineral nahasketa bat eman behar diegu, batez ere gatzarekin, baina beste mineral batzuk ere bai, dauzkagun belarrak kaskarrak direlako. Hilabete edo gehiago egiten badute mineral nahasketarik gabe, ganadua jaisten hasten da. Baina garestia da. Mineral batzuk gainera Belgikatik ekarri behar ditugu eta garestia ateratzen da”, azpimarratu.

Orain garai onean dabilta. “Kongon izan diren gerrateekin-eta, lehen haragia beste leku batetik etortzen zen eta Kinshansha batez ere gure inguruko ganaduekin bizi da. Haragiaren prezioa igo egin da pixka bat. Dena ondo joanda ondo, baina aldian behin sustoren bat ere izaten da. 2003. urtean adibidez, 1.200 buru galdu genituen. Gerrateen geunden eta mineral horietan kobalto egoten da eta kobaltoarekin lehergailuak egin

daitezke eta ez ziguten kobalto erosten uzten. Bi edo hiru urteetan, kobalto falta izan genuen eta kobalto falta horrek egin zuen hainbat botikek ez zuten efektorik egiten. Harrentzako botika eman eta efektorik ez zioten egiten. Azkenean, botika aldatzarekin eta kobalto ematearekin lortu genuen arazoa gainditzea. Baina bitartean ganadu asko galdu genuen”, dio Aldanondok.

Urte Berria

Behia preziatua dute Ballaka tribukoek, dena aprobeztatzen baitute. Burua, buztana, hesteak eta larrua ere bai. “Behi larrua oso ona da gastritis gaitzarentzat. Ospitaletan larrua eskatzen digute”.

Lan askoko garaia da hemendik aurrera Alejandrorentzat. Urte Berria idi haragia janez hasten baitute. “Beraientzat eta idi haragia jatea da ondo hasteko modua. Haragia jan behar izaten dute. Egosita jaten dute, ondo egosita”, esan digu Alejandrok.

Orain arte umil-umil zegoena eta ogi apurrarekin konformatzen zena, orain altxatzen hasi da eta aberatsei mahai gainetik zerbait kendu nahiko balio bezala

duzu, hamar zaku kakahuterekin, kamioiaren gastua kendu behar zaie. Arazoa produkzioa da. Bertan aberastasuna badago baina teknikarik ez dago, garai bateko kobalto eta kobre fabrikak oso zaharkituak daude. Dauzkan beste aberastasun asko, urrea eta koitan... horiek denak atzeko atetik doaz. Kongoko gatazka asko arazo horrek sortzen ditu. Herri oso aberatsa da baina jendea oso pobrea.

Arriskurik bizi izan al duzu?

Gu lurralde pobrean gaude eta jendea ez da hara joaten. Afrikako beste herrialde askotan, pobreak direlako eta pobreak direla daketelako, pobre bezala antolatuta dira eta pakean bizi dira. Aberastasuna topatzen den lekuetan gatazkak orduan hasten dira.

Beste aldetik, nik uste dut Afrikan herri asko oraindik ere egiten ari direla. Orain dela gizaldi bat sartu dituzte herriak han eta mugak. Kongon daude 200-300 tribuekin bat egiteko denbora behar da. Moibutuk nolabait aurreratu du kontzientzia nazionala-edo. Kongori izena aldatu zion, Zaire jarri.

Euskal Herrira itzultzen

zarenean zer sentitzen duzu?

Euskal Herrira etortzen naizen bakoitzean, gero eta bortitzagoa gertatzen zait. Lazaro gajoaren eta gizon aberatsaren irudia askotan etortzen zait burura hona etortzen naizenean. Presaka-presaka bizi zaretelako, mundializazioa ikusten da, baina baliteke astirik ez egotea gauzak aztertzeke, pentsatzeko eta are gutxiago erakundeak aldatzen joateko.

Zein litzateke hainbesteko ezberdintasuna gutxitzeko konponbidea?

Aldaketa handiak erakundeak aldatuta etorriko dira, erakundeak eta estatuak. Estatuak promesak egiten dituzte, politika egiten dute, baina politika askotan gezurra da. Orain dela urte batzuk Espainiako Gobernua-rengatik entzuten genuen %0,7ko laguntza baina %0,3-an dago. Askotan laguntza batzuek baldintzatuak dira. Nik hau emango dizut baina zuk hau egin beharko duzu. Azkenik, aldatu beharko litzatekeena da, merkataritza harremanak deitzen dena. Kafearen, txokolatearen edo mineralen prezioa hemen jartzen da, hemen jartzen dira baldintzak. Ez da kasualitatea jendea hemen ondo bizitzea eta han gehienak pobrezian bizitzea. Ez da kasualitatea, nolabaiteko lotura dagoelako pobre eta ba-

po bizi diren pertsonen artean. Gauza horretan Estatu mailan aldaketa handiak eman behar dira baina, horrek ez du esan nahi pertsona bezala edo herri bezala, ahalegina egin behar denik, bere txikian. Goierrin nik uste dut ari direla eta Idiazabalaren adibidez, %1-a bideratu du garapen bidean dauden herrietara. Denean hori egiten hasiko bagina, lehenengo justizia eta gero gizatasuna egingo bagenu, gauzak hobeto joango litzateke. Erakunde handien mailan ezingo dugu baina bakoitzak bere mailan egin dezake, zuek kazetari bezala, gure testigantza emanez kontzientziarazioa zabalduz. Denon artean mundua zuzentzen edo hobetzen badugu, hobeto.

Euskal Herritik zer eramango zenuke Kongora eta Kongotik zer ekarriko zenuke hona?

Materialki bai, benetan pessimistak izan behar gara. Baina bestetik, lezioa ematen digute, oso gutxiarekin nola bizi daitekeen. Iruditzen zaigu gauza asko eta askorekin, gauzak pilatuta lasaiago biziko garela. Eta ikusten dugu han oso gutxiarekin bizi direla. Nahiz eta hainbeste gauza falta, umore ona berezkoa dela. Bizitzaren gustoa daukate. Patxada, umorea eta berriketan egiteko moduan, lezioa ematen digute.


Hemen laizismoa, goi-



Alejandro Aldanondo,
Loinazpe ikastetxeko kamisetarekin.

koaren gauzak baztertu egiten dira. Heriotza gure bizitzako parte da baina ezkutatatu egiten dugu. Tanatorioa adibidez, ematen du ez dugula ikusi nahi hildako eta gaixoen konturik gure ondoan. Tanatorioa sinbolo bat da. Garai batean aita eta ama etxean hiltzen ziren, eta hileta ere gure parte zen. Gaur egun, etxean hildakorik ez dugu nahi. Han egunero jaiotza pila izaten da eta hildakoak ere bai. Heriotza normal hartzen dute eta hemen badirudi gauza horiek baztertu egiten ditugula. Han, naturarekin, gu baino lotuagoak daude.

Bi postura ezberdin dira: han beti zerura begira bizi dira, desertuan zerutik etorri zen janaren antzera. Horrek esan nahi du, produzitu ez, jaso egiten dutela. Naturatik gauza asko jasotzen dituzte. Urtean hiru aldiz adibidez, harrak edo ehun hanka horietakoak jasotzen dituzte. Nahiko proteina ematen dute. Matxin-saltoa, udan belarrak hiltzen dituztenean, arratoiak, baina garbiak; aldian behin basahuntzak, lertxunak... mozzorro asko biltzen dute. Jaso eta jaso egiten dituzte, produzitu justu-justukoa. Goitik zer etorriko zain egoten dira. Hemengo abe-



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

rastasuna teknologia eta lana dira. Hemen eskulana bukatu da. Hemen produkzioa gehiegizkoa da eta arazoa saltzea da. Eta han, berriz, arazoa produkzioa da.

Afrika aldetik gero eta jende gehiago dator...

Kaiuko horiek beldurra ematen didate. Orain arte umil-umil zegoena eta ogi apurrarekin konformatzen zena, orain altxatzen hasi da eta aberatsei mahai gainetik zerbait kendu nahiko balio bezala da niretzat. Arrisku-tsua da ezberdintasun handiak egitea. Arabiarrek dabilen bezala, amerikarren aurka, beraien bizitza emateko prest daudenak... horrelako zerbait hasiko balitz ekonomia mailan, nolabait, herri aberatsei kontra egiten... ez dakit zenbateraino frenatzeko modua izango litzatekeen. Inork ez du bere herritik alde egin nahi. Alde egiten badute, etorkizunik ez dagoelako da. Herri bat gehiegi estutzen baduzu ea zer gertatu daitekeen. Bi munduen arteko aldeak gero eta handiagoak egiten ari gara.

Euskal Herrian gelditze-ko asmorik ez daukazu beraz.

Ez. Batetik ohitura da eta bestetik, hona etorrira, apaiz lana gehiago izango nuke. Han, apaiz lanaz gain, albaitaritza, ganaderitza lanak dauzkatz eta han zerbitzu ona eman dezaket. Osasuna dudana bitartean, Kongon izango naiz.


Kasongo Lunda GKE: Idiazabal eta Kongoren arteko zubia

Duela lau bat urte sortu zen Idiazabalen Kasongo Lunda Gobernuz Kanpoko Erakundea. "Hango lanen eta hemengo aukeraren arteko zubia egiten du Kasongo Lunda. Idiazabalgo Udalak eta Ampo kooperatibak urtero dirulaguntza ematen dute Kongorako baina elkarte baten izenean eman behar izaten dute eta horregatik sortu genuen Gobernuz Kanpoko Erakundea", zehaztu du idiazabaldarrak. Idiazabalgo Udalaz gain, Zegamako eta Ataungo udalak ere hasi dira proiektuari dirulaguntza ematen.

Dirulaguntza bideratzeaz eta materiala biltzeaz gain, herrian jendea mugitzea eta girotxo bat sortzea eragin du Alejandro Aldanondoren esanetan. "Zuek hemen zaudete, gu han. Dirua ez da dena baina lagungarria da". Kamioneta erosteko dirua Idiazabaldik bideratu dute. "Guretzat ona izaten da hemengo batzuk handik pasatzea, egoera hobeto ulertzen delako. Han adibidez, todoterreno oso sendoak behar dira, bideak oso-oso txarrak direlako. Hemengo kaminorik kaskarra guretzat autopista da".



Material bilketa desberdinak egin izan dira Idiazabalen eta goiko argazkietan ikus daiteke, kongotarrak aukeraketa egiten.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16


TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Eguberri zoriontsuak guztioi!



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik

*Joxpi Insausti, Gipuzkoako
Astozale Elkarteko kidea:*

“Euskal astoa oso ‘señoritea’ da”



Duela ia 8 urte, Lazkaoko Ansoategi elkarteak astoari omenaldia egin zionetik, Gipuzkoan euskal astoa-
ren edo Enkarterriko astoaren alde lane-
an dabilzanak gero eta gehiago dira. Gia-

sel elkartean osatu ziren Gipuzkoako As-
tozaleak. Joxpi Insausti lazkaotarra, Laz-
kaoko Astotxo eguneko zozketan egokitu-
tako astakumearen ondorioz zaletu da eta
gaur egun 22 asto ditu.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo

barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN


BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

1996. urtean Lazkaoko Ansoategi Kultur Elkartea, kultur mailan herria bizitzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatzen hasi zen. Erakusketak antolatzen hasi ziren urtero: traste zaharren erakusketa, irrati erakusketa, Lazkaoko baserri eta etxeen argazki erakusketa... Hirugarren urtean, 1998an, Astotxo egunaren bueltan, astoari omenaldia egitea erabaki zuen Ansoategi Elkartek. "Lazkaon Astotxo eguna berezia izan da beti. Ziklo krosa izaten zen, antzerkia... Bolada hartan astoak omenalditxo egitea merezi zuela uste izan genuen, astoa desagertzeko zorian zegoela-eta", diote Ansoategi-koek. Erronka edo helburu bat jarri zuten Ansoategi-koek urte hartan: Lazkaoko Plazako zuhaitz bakoitzeko asto bana bere traste zaharrenekin jartzea. "Ez zen erraza arbola bakoitzerako astoa bilatzea! Lortu zen baina kostata!", gogoratu dute lazkaotarrek.

Urte hartatik aurrera, astoa protagonista zela, Goierriko asto lehiaketa jokatu zen lehenengo, 1999an, eta handik aurrera, Gipuzkoako maila hartu zuen asto lehiaketak.

Astakumearen zozketa

Astoa izaten da protagonista Errege egunaren hurrengo igandean Lazkaon eta ekitaldiari hasiera emateko, asto eta guzti, kalejira eginen da herrian zehar. Jose Inazio Ansorena txistulariak ere, 'Ohorezko kontrapasa asto ahaltsuari' doinua propio sortua du egun horretarako. Behin lehiaketa bukatuta, haurrek, gurdietan ibiltzeko aukera izaten dute.



Joxpi Insausti, Giasel elkarteko kide lazkaotarra, asto artean.

Gauza gehienetan bezala, dirua eragozpen izaten da horrelako ekitaldiak antolatzerakoan. Gauzak honela, Ansoategi elkarteak errifak salgai jartzen ditu. Saria ere, egunari dagokiona: astakumea. Zozketa horietariko batean, Lazkao Joxpi Insaustiri egokitu zitzaion. "Lanari utzi genion eta ze suma genbiltzan. Astotxo festan, zozketan, astakumea egokitu zitzaidan. Orain 22 asto dauzkat. Jen-deak afizioa hartu du Lazkaon astakumearekin", dio Joxpi Insaustik.

Giasel

Pixkanaka-pixkanaka astoa eta astozaleak ezagutzen joan eta 2002. urtean, Giasel Elkartea sortu zuten Gipuzakoako Astozaleek. Desagertzeko bidean den Enkarterriko astoaren aldeko lana egitea du helburu Giaselek. 24 bat bazkide ditu Giasel-

lek, eta horietatik 9, lazkaotarrak dira. Gaur egun, Ansoategi eta Giasel elkarteak, elkarlanean antolatzen dute Astotxo eguneko lehiaketa.

Bero-bero hasi ziren Lazkaon Euskal Astoaren alde lanean. "Herriak utzi zigun hamar urterako terrena. Ikuilua egiten hasteko asmoarekin ere hasi ginen. Ilusio pixka batekin aurrera egin genuen. Baina ez dugu lortzen ikuilua egitea. Orain baserri bat hartu dugu errentan, negua pasatzeko. Hemen negua da arazoa, gainontzean astoaren gorabehera ez da zaila, terrenoak garbitzeko eskatzen diz-

kigute astoak", zehaztu du lazkaotarrak. Olaberrin adibidez, halaxe dituzte egunotan, Udalak eskatuta.

Erakundeen aldetik laguntza handirik ez dagoela salatu du Joxpi Insaustik. "Orduan ikuilua egin izan bagenu! Baina Diputazioak baldintza asko jarri zizkigun. Eta ez genuen aurrera egin. Erakunde aldetik ikusten da laguntasunik eta interesik ez dagoela. Herri batzutatik hoska dauzkagu Lazkaon egiten dugun festatxo beste herri batzutan egin dezaten. Baina Astotxo festa Lazkaon egiten da eta hemen jarraituko dugu".

Lehenengo urtean asto gutxi zegoen Lazkaon. Gaur egun 22 bat asto izango ditugu.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

Arraza garbitzen


Urtetik urtera asto gehiago gerturatzen da Lazkaora. Hori bai, edozein arrazatako kartilarekin astoek bakarrik dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Dotore-dotore etortzen omen dira Lazkaora, garbi-garbi egin da, “manikura beharrezkoa da lehiaketara joateko”, diote barrez Joxpi Insaustik.

2007. urtean dena den, lehiaketa mugatu egingo dute: “arrazta autoktonoa bakarrik onartzen baitituzte, Euskal Herriko astoa aurrera ateratzea baitugu helburu”, dio lazkaotarrak. Astoen kalifikazioa, Bizkaian, Enkarterrietako Gordexolan eskura daiteke, Gipuzkoan, oraindik ez baitago horretarako aukerarik. “Astoak bere kartilarekin etorri behar izaten dute. Guk hemen Gipuzkoan egin nahi dugu, Lazkaon. Udaletxearen aldetik, aurrera eramateko arazorik ez dago, eta Diputazioarekin harremanetan gaude”, zehaztu du Insaustik.

Enkarterriko astoaren arraza hobetu nahian dabil Giasel. “Arraza nahasketa handia dago hemen”. Arraza garbitu nahi dute, nahiz eta horretarako urte asko behar diren. “Asto oso polita, sariak ateratakoa izan arren, ez du beti asto onik ateratzen. Urteen poderioz, pirenaika behiekin gertatu zen bezala, arraza garbituko da”, gaineratu du lazkaotarrak. Giasel elkarteari esker, gero eta asto gehiagok lortzen omen dute kalifikazioa edo kalitatezko ziurtagiria.

Bazterrak garbitzeko

Joxpi Insaustik, zaletasunagatik zaintzen eta hazten ditu astoak. Historian zehar eta baita gaur egun ere, lur-sailak edo bazterrak garbitzeko erabiltzen dira astoak. “Makina sartzen ez den lekuetan astoa jarri eta oso ondo garbitzen du terrena”, zehaztu du lazkaotarrak.



Enkarterriko astoaren ezaugarriak

Belta edo marroi ilun kolorekoa izan behar du Enkarterriko astoak; burua eta belarriak proportzionatuak izan behar ditu; begia eta mutur bueltak zuriak izan behar ditu; eta ahal bada, zurigune horien inguruan kolorearen degradazioa izan behar du. Honelaxe deskribatu du Joxpi Insaustik, Enkarterriko astoaren beste ezaugarri batzuk: “txikia, 1,20 metrotik beherakoa, hanka meheak, kasko txikiak, azpi zuria, muturra zuria, begi ondoak zuriak... Oso señoitea da hemengo astoa. Oso jenio biziko astoa da. Egoskorra. Euskaldunok jeneralean egoskorrak gara eta astoak oraindik gehiago”.

Gaur egun beste betekizun bat ere eman zaio astoari, gero eta gehiago gainera, gazteak ere astozale elkartean baitaude: herriz herri ibiltzen dira festetan eta azoketan, asto karrerak, haurrak atzera eta aurrera ibiltzen... “Diru pixka bat ateratzeko ondo etortzen da”, diote. Izan ere, astoak ez du ekonomikoki etekin handirik ematen: “saldu ere egiten ditugu baina horretan ez dago negozioirik. Astoak ez du balio. Kalifikatu-

tako batek, hainbeste, baina hala ere gutxi”.

Idea ugari

Dena den, astoari balioerantsi handiagoa emateko, ideia ugari dituzte. Lehenengo eta behin, ikuilua egin, arraza garbitu eta aurrera egin nahi dute.

Bestetik, beste leku batzuetan astoarekin egiten dituzten esperientziak jasoak dituzte. Joxpi Insaustik kontatu dizkigu batzuk. “Bada-jozen egon ginen madrildar

batzuekin, astoa elkartea zeukaten haiek ere eta astoaren esnearekin, jaboia, kremak, goxokiak... egiten zituzten”. Zamoran, berriz, erromesaldietarako erabiltzen dituzte astoak. “Zamoran, erromes astoa deitzen diotena ere badago. Santiago Bidean, 100 asto baleuzka ehunak alokatuko omen lituzke jendeak Santiago Bidea egiteko”.

Katalunian, adibidez, “senar-emazte bikote batek, 20 bat aste dauzkate, gazte-jendearentzat. Karneta aterarazten diete gazteei. Karneta duenari astoak uzten dizkiete, gazte jendea motibatuz”.

Ildo horretatik, lazkaotarrak honokoa gehitu du: “idea handiak dauzkagu. Guregatik balitz, honezkero astoak Txindokira behetik gora igo genituen”.

Gazteak ere astozale

Lazkao aldean gazteak ere astoen saltsa horretan sartuta dabilta. “Gaztetxea jarri nahi zuten eta herriak ez zieten ematen eta astoetxea jarri dugu”, dio txantxetan Joxpi Insaustik.


Iñaki Insausti eta bere laguntaldea da horren adibide. “Joxpi osaba dut eta koadrilako beste bat bere aitaren arrimoan, koadrila guztia sartu ginen astozale elkartean”, esan du Iñaki Insaustik.

Gustura dabilta asto artean. “Konpainia ona da mendira-eta joateko”. Irteera bereziak egin dituzte. “Lazkaotik Izabaraino joateko asmotan atera bai, baina Lekunberriko kanpinerraino iritsi ginen. Orreagara gurdietan eramanez eta azkeneko kolpea egingo genuelakotan, buelta hartu behar izan genuen, astoak lurtean etzanda gelditu baitziren, ez aurrera eta ez atzera”.

Aurtengo abuztuan, Valderojoko parkera joan ziren, hiru egunetarako. “Pobreen zaldiarekin ibiltzen gara gu”, dio lazkaotarrak.



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54



Zoruak eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



**Eguberri zoriontsuak goierritar guztioi
Olaberriko udalaren izenean**





Drindots, 25 urte plazaz plaza

Realak Liga irabazi zuen urtean sortu zen Lazkaon Arrano Beltza musika taldea. Hainbat aldaketaren ondoren, 1988-89 inguruan Drindots izen hartu zuen taldeak. Plazaz plaza eta kantaz

kanta, zilarrezko ezteiak bete dituzte aurretan. 'Eba Mirentxu' eta 'Maritxu nora zoaz' kantekin lortu izan dute arrakastarik handiena. Jon Urdagarin taldekideak, egin digu Drindots taldearen errepasoa.

berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTIK BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

1981. urtean Drindots taldea sortu aurretik, Arrano Beltza taldea osatzen zuten Josune Albisu, Jon Urdangarin, Alberto Pelaez eta Aitor Agirrezabalak. Egan eta Akelarre taldeek plazetan euskaraz kantatzean hasiak ziren ordurako. "Kalejirak, fandangoak, arin-arinak, balsak, rocka... jotzen zizuten. Hemengo abestiak jotzen ziren baina kanpokoak ere bai: euskaratuak edo ingelesez. Rantxerak beranduago etorri ziren", gogoratu du Jon Urdangarinnek.

Nolatan elkartu zineten Arrano Beltza taldean?

Aitorrek 13-14 urte zituen eta nik 14-15. Jaxintoren mezatan jotzen genuen, Aitorrek eskusoinua eta Josune Albisuk eta biok gitarra. Mezatan, Pantxoa eta Peio, Gontzal Mendibil, Xabier Lete... ETB-1ko Euskal Kanturik Onenaren lehiaketan atera ziren abesti guztiak guk mezatan jotzen genituen. Nik Beasaingo Alkartasuna Lizeoan ikasten nuen eta behin bertako festa batean, abestu egin behar nuen klaseko beste batekin. Alberto Pelaez megafonia jartzera etorri zen. Hark ikusi eta musika jotzeko ea gazterik ezagutzen nuen galdetu zidan, bera zaharrek jotzen aspertuta zegoela eta. Orduan, lauok taldea osatu genuen. Hasieran kantu asko, mezatan jotzen genituenak ziren, kanpokoak gutxi ezagutzen genituen. Albertok berak ekartzen zituen Beatles, Rolling... berak euskaratuta zeuzkan eta haiek jotzen hasi ginen.

Non eman zenuten lehenengo kontzertua?

Lazkaoko Udaletxeko kon-



Triku Agirrezabala, Jon Urdangarin eta Alberto Pelaez, Nafarroako herri batean emanaldian egin aurretik kalejiran

Lehenengo ibilgailua

Bittor Agirrezabal izaten zuten txoferra. "Hark zuen Land Roverrari bola jarri eta desguate batean, saab furgoneta zahar bat erosi eta kabina kendu eta txapa bat jarri eta erremolke bat bezala erabili genuen. Alberto Pelaezek Irizarren lan egiten zuen. Industriak legeztatzeko, Irizarren prototipo bat izango balitz bezala, paperen bat egin ziguten eta horrela legal ibiltzen ginen baina Guardia Zibilak askotan gelditzen gintuzten. Gu Land Roverrean joaten ginen, parrillan batera...", gogoratu du Jon Urdangarinnek.

Drindotsen garaian, Mercedes furgoneta erosi zuten. "Urdinez margotu eta hizkiak arroxak kolorez margotu genituen. Beste kamioitxo bat ere erosi genuen. Ondoren, kamioi berri bat erosi ala ez pentsatzen aritu ginen baina azkenean, ekipoa alokatzea erabaki genuen. Orain musika bakarrik jotzen dugu", zehaztu du lazkaotarrak.

txejuan, arkupeetan, jo genuen. Festak aurretik edo, ezer ez zegoen batean jo genuen. Egun hartan, arratsaldean bertan erosi genuen bajua. Taldearen ideia zen Josune Albisu bajista izatea baina orduan ez zekien jotzen, gitarra jotzen zuen. Nik zerbait banekien eta horrelaxe ibiltzen ginen, batzutan bajua jotzen nuen eta beste batzuetan gitarra.

Non egiten zenituzten entsaioak?

Lehenengo entsaioak, nire gurasoen garajeetan egiten genituen. Gero, Amebin. Amebi zaharrean, bi pisu geneuzkan entsaiatzeko.

Egia esan, orduan gazteak ginen eta arratsalde asko pasatzen genituen bertan. Urte asko pasatu genituen. Baina gero erre egin zen, eta berritutakoan ere bertan jarraitu genuen. Gero sagardotegia jarri zuten eta hemen jarraitu genuen. Orain Ibarran entsaiatzen dugu. Amebin ere badaukagu lekua baina Ibarrakoa leku egokiagoa da.

Nola izan zen Arrano Beltzetik Drindotserako aldaketa?

Arrano Beltzan aldaketa handiena bateria jolea, Alberto Pelaez, aldatzea izan zen. Gure koadrilako bat,

Fuentes, sartu zen. Ez naiz gogoratzen, noiz aldatu genuen taldearen izena, 1988-1989 inguruan izango zen. Arrano Beltza izena Alberto Pelaezek jarri zuen. Egia esanda, oso izen polita zen baina dantzaldiz dantzaldi ibiltzeko oso komertziala ez zen. Arran beltz, Ardoa beltz... denetik jartzen ziguten. Josune Albisuk ere laster utzi zuen. Bajua jotzen, Beasaingo Inigo Apaolaza hasi zen. Teknikari, Jokin... Denok gaztexeagoak ginen eta beste talde batzuk hasi ziren: Itoiz, Errobi... Guretzat erreferentzia Itoiz izan zen, Itoiz aurretik ere

Olagi Urte guztian zabalik

Sagardotegia Eguneroko menua

Jatetxea Karta

Sagardotegiko menua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

berbena talde bat baitzen. Gu ere gure kantatxo batzuk sortzen hasi ginen. Gero beste gitarra jole bat sartu zen, Beasaingo Xabi Auzmendi. Berak ere abestu egin zuen eta taldeak nahikoa hobetu zuen. 90.eneko hasieran, bateriak utzi egin zuen eta Caballero sartu zen. Bajistak ere utzi egin zuen eta Igor Oiarbide sartu zen. 90. hamarkada hasiera saio gehien eta disko gehien atera genituen garaia izan zen. Lau disko atera genituen eta hiru, urte gehiena iraun duen taldeak grabatu zituen: Caballerok, Igor Oiarbidek, Xabi Auzmendik, Aitor Arrizabalagak eta Jon Urdangarinek, eta Jokin teknikariak.

Drindots izena nola erabaki zenuten jartzea?

Denbora asko pasatu genuen izena erabakitzeke. Adda pentsatu genuen lehenengo baina beste talde bat bazegoen izen horrekin eta ezin izan genuen jarri. Batek orduan esan zuen, hiztegian begira aritu zela eta izen polit bat aurkitu zuela: Drindots. Horrelaxe jarri genuen. Zaila izaten da taldearen izena asmatzea.

Urte asko daramazkizue plazetan. Asko aldatu al dira plazak?

Bai, plaza asko aldatu da gu hasi ginenetik hona. Hemen Egan, Akelarre... taldeekin, jende gaztea hasi zen dantzaldietara joaten. Askotan dantzaldien bidez eskatutu genuen kanpoko musika. Txiste bat badago: tipo bat taberna batera doa eta hara, Egan! Eta Queen izan. Baina gero gazte jende hori hel-tzen joan da eta atzetik etorri den jende horrek beste ohitura batzuk dauzka: ta-



Urte arrakastatsuenetako taldea: Jon Urdangarin, Igor Oyarbide, Xabier Auzmendi, Miguel Angel Caballero eta Triku Agirrezabala

Drindots kideak

Urte hauetan guztietan, era batera edo bestera Drindots taldean aritu izan direnak, asko izan dira. Jon Urdangarinek, guztien zerrenda egin du:

Abeslari eta gitarra-joleak: Xabier Auzmendi eta Jon Urdangarin. Gitarra-jolea: Iker Piris. Baju-joleak: Josune Albisu, Iñigo Apaolaza eta Igor Oiarbide. Bateriak: Alberto Pelaez, Joxean Fuentes, Miguel Angel Caballero, Enrike Rubiños eta Joxean Flores. Teklista: Triku Agirrezabala.

Laguntzaile eta ordezkioak: Abeslaria, Denis; gitarra-joleak, Jean Lou Courrions eta Jorge Fernandez; baju-joleak, Ritxi Salaberria; soinu-jole eta teklista, Iñaki Izagirre, Izaro Garmendia eta Aitor Furundarena.

bernetan musika entzun eta bertan dantza egin. Guk ahal dela gazteentzako bideratutako saioa prestatzen dugu, baina leku askotan ez dira etortzen. Bizkaian, ez dakit zergatik, baina bai etortzen dira. Gu hasi gine-nean, Lakuntzan adibidez, plazan dena gazte jendea egoten zen, baina gaur egun jende helduagoa etortzen da. Beraz, mexikanak jo behar izaten ditugu. Gauza arraro samar bat ere gertatzen da: behin 40 urtera

gerturatutakoan, mexikanak gustatzen hasten zaizkio jendeari.

Errepertorioa asko aldatu al duzue?

Hori da gure artean beti daukagun zalantza. Batzuk zera diote: guk 25 urte daramazkigu jotzen eta jendeak badaki zer jotzen dugun eta guk geureari eutsi behar diogu. Beste jarrera bat da, plazan hau dago, eta horren arabera egin behar dugu. Egia da jendea bidaltzea ere gogorra dela. Gertatu izan

zaigu batzutan, zeuden apur-rak ere joatea.

Dena den, guk ez dugu inoiz errepertorioa idatzita eramaten. Ez da gauza zurruna. Jende heldua dagoe-la, ba rantxera gehiago joko ditugu... Lehengo batean Plentzian eskatu ziguten ahal bagenuen erdaraz gehiago egiteko. Euskaraz aurkeztu eta gero itzulpena erdaraz giten nuen.

Politena errepertorioa asko berritzea litzateke, baina egia esanda nahikoa zai-



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



la dago. Guk gehiena euskaraz egiten dugu eta euskaraz azken urteetan ez da horrelako aukerarik sortu. Talde asko daude baina, guk behar dugun abestia da, plazara joan eta jendeak dantza egingo duena. Gertatu izan zaigu, neguan abesti pilo bat entsaiatu eta plazan jotakoan inork ez dantzatzea. Guri polita iruditu arren, askotan ez du erantzun onik jasotzen plazan.

Gazte askok eskatuta, adibidez, iaz Kortaturen Sarri-sarri jotzen hasi ginen.

Gu bezalako talde askok, erreperitorioa umeentzat eta helduentzat daukate. Gu saiatzen gara tartekoentzat ere izaten. Betizu, Pirritx eta Porrotxen kantuak ere sartzen ditugu.

Eta musika taldeak asko aldatu al dira?

Plaza taldeak hasi ginen, gero rock taldeak etorri ziren, gero trikiti taldeak, gero DJ-ak... Plazatan jende gutxi dago eta udalek ez dute diru askorik jarri nahi eta talde txikiak ekartzen dituzte. Baina talde txikiak jarrita, ezer ez daukat kontra, baina normalean okerragoak dira. Gaur egun neska eskotedunak ere modan daude. Lehen desagertu egin ziren neska eskotedunen orkestrak, baina orain berriz ere hasi dira.

Gaur egun DJak daude modan.

DJ batek nahi duen musika



Jon, Triku eta Iñigo Apaolaza Amebi zabarrean entsaiatzen.

jar dezake. Baina gu bezalako taldeek daukaten abantaila bat da, norbait kantari hasten bada, hari jarraitzea daukazula, bera abesten ari den tonotan. Askotan, horrelako tontakeriek giroa jartzen dute. Nafarroara joan eta Osasunaren zerbait abesten baduzu, edo Bizkaian Athleticena... giroa jartzen da.

Non jo izan duzue gehien?

Orain arte gehiena Nafarroan jo izan dugu, baina orain gehiena Bizkaian jotzen dugu. Nafarroan asko jo izan dugu baina hizkuntzarekin izan ditugu gorabeherak eta orain gutxiago jotzen dugu, herri euskaldunetan baka-

rrik jotzen dugu eta.

Gipuzkoan gutxi jo izan dugu. Lazkaon, Goierri... eta askoz gehiago ez dugu jotzen. Gipuzkoa erdian ez dugu sekula ere jo. Bizkaian, askotan. Gainera Bizkaian, askotan, txosnen ondoan jartzen dute dantzaldia eta giro ona egoten da. Hemen txosnak urruti jartzen dituzte.

Zeintzuk izan dira Drindotsen garairik onenak?

1990. urtean saio dezente egiten hasi ginen, ekipo dezentea geneukan. 1992an diskoa grabatu genuenean, telebistan ere agertu ginen... horiek izan ziren garairik onenak. Askoz ere gazteagoak ginen, lan ere

Jokinek eta biok egiten genuen eta entsaiatzeko ere hobeto. Garai hartan bazen gure asmoa musikatik bizitzetza, baina 1995-1996. urterako dantzaldiak behera jaisten hasi ziren eta ikusi genuen hori oso-oso zaila zela.

'Maritxu nora zoaz' eta 'Eba Mirentxu'... Drindotsen abesti izarrak.

'Maritxu nora zoaz!' 1992an eta 'Eba Mirentxu' 1995ean izan ziren arrakasta handieneko abestiak. Gu aspalditik genbiltzan diskoa grabatzeko asmoarekin. Ikusi genuen rock eta plaza talde, batera ezin ginela izan. Abestien aukeraketa egin eta orduan Xabik esan zuen behin lagunekin parrandan, 'Maritxu nora zoaz!' abestu zuela eta arrakasta izan zuela. Behin Lazkaoko San Migeletan proba egin genuen eta erantzun ona jaso genuen eta diskoan sartu behar genuela erabaki genuen. Diskoa Durangoko Azokaren ondoren kaleratu zen, Gabonak inguruan, baina guk kopiak Santo Tomas bezperan lortu genituen eta gogoratzen naiz Donostian Alde Zaharrean tabernaz taberna joan ginela, diskoa oparituz. Hurrengo egunean, taberna gehienetan tope omen zegoen 'Maritxu nora zoaz!'. Gu harrituta. 1992an asko jo genuen eta gure izentxoa hartzen hasi ginen Maritxuri esker.

Eguberri zoriontsuak



MAPFRE
ASEGURU TALDEA
Pello Barandiaran
☎ 943 16 13 61
Jose Lasa, 3 LAZKAO

Zorionak eta Urte Berri on!



Tel.-faxes:
943 16 30 26
Goierri kalea, 10
ORDIZIA



'Lau teilatu' da gehien jo dugun kantua

Drindotsek zer eman di- zu?

Momentu on asko eman dizkit. Nire bizitza ez dut imajinatu ere egiten Drindotsik gabe. Kendu, lagunekin ibitzea kendu dit. As-teburuetan jotzen dugunez, libre gaudenean familiarekin egon behar duzu, eta ez da astirik gelditzen betiko koadrilarekin egoteko. Orduan, koadrila edo lagunak, taldekoak bihurtzen dira. Lehen parranda asko egiten genuen, batez ere 1990. urte inguru horretan, arrakastarik gehiena geneukanean. Orduko ekipoa nahikoa parranderoa zen. Bestetik, Euskal Herriaren ezagutza nahikoa zabala eman digu. Bestela izango ez genituen ezagun asko ere bai.

Kontzerturik bereziena zein da?

Lehen Lazkaon jotzea berezia izaten zen. Orain jende gutxi joaten da eta ez, baina 1992-1993 urte horietan, plaza jendez gainezka egoten zen eta guretzat gauza berezia izaten zen. Horretaz aparte, Kilometroak-en eta jotzea polita izaten da. Behin polita izan zen, desberdina izan zelako, Bilbon, Egin egun batean, Eginnek 20 urte bete zituenean uste dut izan zela, 20 urteko kantagintzaren errepa-soa egin nahi zuten eta gu-



Triku eta Jon dira 25 urteetan taldean iraun duten bakarrak.

ri esan ziguten. Gu orkesta bezala ginen eta gero artistak igotzen ziren eszenario gainera, Su Ta Garrekoak, Urtzekoak, Sorotan Beleko abeslaria, Fito, Barrikada-koa... Hura berezia izan zen.

Eta tristeena?

Behin Beran, inor gabe jo genuen kontzertu bat. Abuztuaren 3a zen eta udal-letxeke plazan jotzen genuen, tabernetatik urruti. Inor ez zen agertu.

25 urte hauetan gehiena jo duzuen kantua?

'Lau teilatu'. Beti erreper-
toriotik kentzekotan gabiltza baina ezin dugu, beti eska-
tzen du norbaitek. Jo beha-
rrekoa da. Gainera ondo
etortzen da baterijoleak
atseden hartzeko. Eta dan-
tzaldi batean gehien jo izan
dugun kanta, 'Sarri, sarri'
da. Behin 9 aldiz jo ge-

nuen, eta lau segidan. Eta
jendea gustura.


Abestirik gorrotagarrie- na zein duzu?

Ez dugu jotzen baina 'Pa-
quito Chocolatero'. Beti es-
katzen digute baina ez du-
gu jotzen.

Bitxikeriaren bat:

Hasieran, Muskizen jotzeko
deitu ziguten. Nafarroan as-
ko jotzen genuen garai har-
tan eta Etxaleku inguruan
Muskiz bat badago eta hara
joan ginen. Iritsi eta han ez
zegoen festarik. Gutariko
batek esan zuen, Lizarra
ondoan bazegoela beste
Muskiz bat. Jairik zegoen
galdetzeko telefonoz deitu
genuen eta ezetz. Bizkaian
ere badago ba Muskiz eta
telefono listina hartu eta ta-
bernaren bateko telefonoren
batetik Muskizko taber-
na batera deitu genuen.
Festarik ba ote zen galdetu

genien eta baietz esan zigu-
ten. Zein taldek jotzen zuen
galdetu eta "uno de nom-
bre raro" erantzun ziguten.
Gu orduan Arrano Beltza
ginen. Muskiza joan ginen
baina ez ginen gu, taldea
jotzen ari zen. Azkenean,
gasolindegia batetik bitarte-
karia harrapatu genuen eta
herria Uztegi zela esan zi-
gun. Nafarroan, Arribe eta
Betelu inguruan dago. Bai-
na ez ginen iristen. Hurren-
go egunean Tafallan jotzen
genuen eta Uztegiara joan
ginen, herri txiki-txiki bat
da eta iritsi orduko gizon
batek esan zigun: "zuek al
zarete atzoko graziosoak?".
Kostatu zitzaigun baina az-
kenean komentzitu genuen
gaizki ulertua izan zela.
Hurrengo urtean joan ginen
jotzera. Behin Zugarramur-
din sei egun pasatu geni-
tuen jotzen, festa osoak.




LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

faktore
URTE BERRI ON

Oriamendi, 37 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T 943 088 169
F 943 886 874
faktore@faktore.net
www.faktore.net



LAZKAO



Azaroaren
29az geroztik, Uhaitz kaleko 1-eko
bulegoan gaituzu berriro, zuri zerbitzu hobea
esakaintzearren zabaldu egin baitugu.

www.kutxa.net

 **kutxa**

Joxe Ugarteburu, aizkolaria:

"Arrospide eta Azurmendirekin aritzen naiz entrenatzen eta berriz ere afizio pixka bat sartu zait"

Txapelketa ofizialetara itzuli da aurten Joxe Ugarteburu Aizkolari ezkiotarra. 26 urterekin, onenean zela, utzi ondoren, 47 urterekin behetik hasi eta Euskal Herriko 3. mailako txapela jantzi du. Urte guzti hauetan aizkoraren mundutik erabat aldendu gabe egon eta ilusio berezia egin dio orain txapela lortzeak.

Kol. zkia.: 764

*Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on!*



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

*Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia*

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

26 urterekin utzi eta 47rekin berriz hasi.

Utzi, utzi, ez dut sekula utzi. Erakustaldi bat edo beste beti egin izan dut. Oraingo kontuak, zahartzaroko kontuak dira. Lehiaketetan hasi naiz berriz, ez dakit zenbat denborarako izango den baina... Gure urtetan ez dago asko aurrea begiratzerik.

Txapela behintzat irabazi duzu.

Bai, txapela ekarri dut baina, hirugarren mailakoa, oraindik kategoria kaskar samarra.

Txapelak aurrera egiteko indarra emango dizu, ezta?

Bai. Hor ibili eta aurten ez banu ezer egin, morala jaitsi egingo zitzaidan. Hurrengo urtean behintzat segi egin beharko diogu. Ikusiko dugu gorputzak laguntzen duen. Txapelak beti ematen du poza. Hurrengo urtean Bigarren mailan arituko naiz.

Itzulera nolakoa izan da?

Gaztetan aizkoran ibili nintzen baina gorputz txiki samarra eta ez nuen gauza handirik egin. Hirugarren postuan ibiltzen nintzen. Nire boladan Mindegia, Mendizabal eta Arria onenean zeuden. Batean Arriari kentzea lortu nuen baina Mendizabali eta Mindegia ez. Beste batean Mendizabali irabazi nion baina Arria izan zen aurretik... Txapela ekartzeak ilusioa egin dit,

nahiz eta maila txiki samarra izan. Kontuan hartu behar da ia 50 urterekin ez daukagula lehenengo mailan egotarik. Orain Hirugarren Mailan aizkoran ondo egiten dutenak badabiltza. Telletxeak eta Otaegik nahikoa gerra eman zidaten. Azurmendi eta Arrospidegatik ez balitz, ez nintzatekeen berriz aizkoran hasiko. Lehen 26 bat urterekin utzi nion aizkorari, lanagatik. Bizkaian lan egiten genuen arrastradora batekin, iluntzean beti berandu etorri, goizean goiz joan, zapatuak-eta bakarrik aizkorarako eta utzi egin nion. Onentxoenean nengoenean utzi nuen.

Nolatan erabaki duzu berriz ere lehiaketetan hasitea?

Angel Arrospiderekin eta Iñaki Azurmendirekin beti hor ibiltzen naiz, egurrak jartzen eta laguntzen. Berriz ere afizio pixka bat sartu zitzaidan eta pentsatu nuen aurten lehiaketan izena eman behar nuela. Aurreko bi urteetan ere ibili izan naiz bikoteka. Aurten pentsatu nuen Gipuzkoako mailara joatea, bigarren mailara. Txapela ateratzeko asmoz joan nintzen baina Otañok irabazi zidan. Handik Euskal Herriko hirugarren mailakora joan nintzen eta han suertea izan zen.

Zaila izan al zen 26 urterekin aizkora utzea?

Bai, bai, zaila. Baina aizko-



ratik ez zegoen bizi izaterik, makina handi bat ekarrita geneukan eta hura ere ordaindu egin behar zen... Nahikoa zaila izan zen erabakia baina utzi egin nuen. Baina egia esateko utzi-utzi ere ez dut sekula egin, beti hortxe ibili izan naiz txirritxirri, saio batzuk eginez. Azkeneko hiru bat urte daramazkit Azurmendirekin

eta Arrospiderekin eta asko lagundu didate. Nik ere haiei laguntzen diet eta horrela ibiltzen gara.

Azurmendi bera ere uzte-kotan ibili da ba aurten.

Hark beragatik, utziko zukeen, baina guk esan diogu aurrera egiteko.

Elkarri zirika ibiltzen zaretela beraz.

Zirika ez baina bakarrik as-

J A T E T X E A

MANDUBIKO BENTA
Tel. 943 88 26 73

J A T E T X E A

MUGAR
K21

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENAK
aberiak, atezain automatikoak, TB antenak,
pabiloiak, dendak, proiektuak,
berrikuntzak orokorrean...

E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net

Euskal Pilota, 4 San Inazio, 8
% : 943 160 240 % : 943 888 907
ORDIZIA BEASAIN
Faxa: 943 888 688

Lehenengo aizkora australiarra

Joxe Ugarteburu izan zen joko batean australiar aizkorarekin aritu zen lehen euskal aizkolaria. Donostiako belodromoan euskaldunen aurka txapelketa jokatzera etorri ziren lehen aldiz Australiar aizkolaria, "1974. urtea izango zen, ilbeltzean etorri ziren eta nik otsailean banuen joko bat Azpeitian. Aizkorak erosi nizkien, 100 dolarretan. Etxera ekarri eta kirten luzea zeukatenez ezin nintzen moldatu. Baina gustatu egiten zitzaigun. Kirten luze eta guzti nik eraman nuen lehenengo australiar aizkora plazara. Jendeak hasieran esango zuen aizkora baldar harekin zer egingo ote nuen. Bi egurretan bakarrik ibili nuen aizkora hura, ezin nintzen moldatu eta", gogoratzen du Joxek.


Denborarekin hemengo lan egiteko erara egokitu zituzten aizkorak. "Aizkora onak ekarri zituzten, oso onak, baina aizkora oso handiak, eta hemengo egurrera ez ziren hain ondo moldatzen, baina ikusten zen material ona zegoela eta jarri zitezkeela honerako", dio Ugarteburuk. Aizkora bezala askoz ere aizkora hobeak zirela ikusten zuten. Hemengo aizkorak buru handia zuen eta atzera gelditzen zen. australiarrak, berriz, altzairu hobeak eta forma hobeak, dena hobeak zuten. Oso aho zabalarekin zetorren aizkora eta hemengo egurrean ez zen sartzen asko, baina estutu eta moldatu zituztenean, asko hobetu zuten. Kirtenak kendu, motzagoak sartu, aizkora pixka bat txikitu, pisua kendu... Denborak erakutsi zuen askoz ere aizkora hobeak zirela. "Orain azkeneko urtetan, aizkora denak berdinak datoz. Lehenengo urtetan Australiatik ekarritako aizkora haiek baino hobeak ekarri zituzten aurrerago", dio Joxek.

Hemen, berriz ere txapelketa bat jokatu zen Australia-rekin eta amerikarrekin eta bigarren aldi horetan etortzerako aizkoraz nahiko prestatuta zeuden euskaldunak. Lehenengo aldian australiarrek irabazi egin zuten eta bigarren aldirako bertakoak erramintaz eta abar prestatu zirenez erraz irabazi zuten. "Hango jendea ez dago ohituta lan luzeak egitera eta horren bentaja izaten zen. Egur bakarrean hori bai, aizkolaria oso onak badaude".

1979an, Australiara joan zen Ugarteburu, Arria eta Mingegiarekin, erakustaldi batzuk egitera. Hilabete pasatu zuten. Ordurako aizkora dezente etorrita zegoen eta beraiek ere aizkora mordoxka bat ekarri zituzten. "Gaur egun ez da arazorik hango aizkorarik lortzeko, lehen baino merkeago etortzen da gainera".



1983ko azaroaren 13an, Euskal Herriko txapelketan 3. postua lortu zuenean.



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
 Faxa: 943 02 79 39
 San Inazio, 5 BEASAIN



Jauregi
TOLDOAK





INSTALATZAILE OFIZIALA



laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

pertu egiten da egurrak jarrri, egurrak kendu. Gu askotan batera joaten gara entrenatzera, elkarri lagunduz. Bakarrik errazago uzten da. Aizkora beti segi beharreko kirola da. Denbora luzean utzita bazaude, hasiera txarra izaten da, eskuak leheritu egiten dira. Gazteek ere zaila daukate gaur egun. Egurra ere nahikoa garesti dago eta hortik ez dago bizimodurik.

Orain egurra ekarri behar izaten da, zuek, gaztetan, basoan bertan entrenatzen al zenuten?

Orain dela sei urtera arte mendian egin izan dut lan eta ni hala ere nahiko ondo moldatzen nintzen, basoan beti izaten baitzen egurren bat. Gaur egun, egur asko kanpotik ekarri behar. Frantzia aldetik ekartzen dugu, hemen ez da pago askorik botatzen eta nahiko garesti etortzen da. Ofizio edo kirol nahiko pobrea da. Baina gustatu egiten zaigu eta udan erakustaldi batzuetan gustura ibiltzen gara.

Aurrera begira zein helburu duzu?

Nahiko egoera gogorra jartzten zait, bigarren maila horretan aizkolarari nahiko politak daude eta. Ahal dudan bitartean jarraituko dut.

Aizkoran esperientziak balio handia duela esaten da ba?

Bai, bai esperientziak asko balio du. Korteia ikasi egin behar da. Batzuk sekula ez

dute ikasten berriz. Baina esperientzia 30 urterekin behar da. Eta sasoia ere orduan izaten da. Behin zahartuz gero, esperientzia bakarrik ez da nahikoa.

Aizkora utzi zenuenean Mikel Mindegia ba zebilen eta oraindik ere hor dabil.

Orain dela 25 urte makina bat erakustaldi egiten genuen Arria eta Mendizabalen aurka. Orduan onena zen eta oraindik ere onenen mailan dabil. Baina Mindegia bakarra da. Esan liteke Mindegia aizkorarako jaio-takoa dela. Hark bai daukala esperientzia eta sasoia.

Gazteak ba al datoz atzetik?

Batzuk badatoz. Ikusten dira gazteak. Aurten Otaño Lehenengo mailara pasatu da. Otaegi ere hor dago, nahikoa gaztea. Mugertzaren semeak ere hor daude. Badaude bai gazteak. Ikusi egin behar zer ateratzen den. Askok, gaztetan pixka bat atera eta gero utzi egiten dute. Arriaren semeak, adibidez, etorkizun ederra zeukan, baina ez zuen jarraitu.

Erakustaldi asko izaten al duzu?

Aurten nahikoa ondo, dezentente egin ditut. Azurmendirekin, Aierberen semearekin, Arrospiderekin... Aizkolaria, txarxeagoak ala hobexegoak, asko gaude eta erakustaldiak gutxitu egin dira. Orain dela sei ur-



retik hona, aizkolaria gehiago dago. Erakustaldietarako kaltea ekartzen du, hobexegoak ala txarxeagoak denek egiten baitituzte erakustaldiak.

Zu zenbat urterekin hasi zinen aizkoran?

17 urterekin. Baina aurretik beste lagun bat eta biok, Hernanira, Tolosara, Azpeitira... joaten ginen apustuak ikustera. Guk afizioa gazte-gaztetatik eduki dugu eta gaztetan joko dezentente ikusitakoa naiz. Batean gogoratzen naiz, gazte-gazteak ginela, Azpeitira joan ginela Urolako tren hartuta. Zezen-plaza non zegoen ez genekin, eta gizon handi bat ikusi genuen txapelarekin eta hari segika halaxe bilatu genuen. 15 bat urte edukiko genituen.

Nola hasi zinen?

Basoan hasi nintzen lanean, Iurrebaso eta horiekin. Hark animatuta Tolosara jo-

an nintzen 17 urterekin gazteen txapelketara eta bigarren gelditu nintzen. Handixe hasi nintzen tarra-tarra.

Irakaslea nor izan zenuen?

Lehenengotik Iurrebaso ibili nuen baina gero Leitzako Cristobal Illarta, Mendizabalekin, Astibiarekin ibilitakoa. Oso ona zen. Laguntzaile Aranburu anaiak ibiltzen nituen, Zumarragako harakinak ziren.

Etxean ba al zen aizkolaririk?

Ez. Aita atletismoan ibilitakoa zen, baina besterik ez zen. Afizioa beti izan dut eta hemen inguruko egur guztiak koxkatzen nituen.

Tolosan egin nuen debuta. Baina aurretik Ezkio-ko festetan atera nintzen eta gero handik hasi ginen. Baina nik gazte-gaztetatik eduki dut afizioa aizkorarako. Neuk gustoa nuelako hasi nintzen.



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07
943 88 70 48
Faxa: 943 88 28 01

car.osinalde@terra.es
lgara industrialdea, z/g
ORMAIZTEGI



Iñauti

Hartz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN

☎ 943 88 46 28

ORKI

Opariak

Arropa osagarriak

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 943 88 10 50

BEASAIN

Aizkora utzi zenuenean zein egoeratan zegoen aizkora?

Mailaz, orduan gehixeago ote zegoen nago. Orduan egiten ziren denborak eta orain egiten direnak alderatu eta nik uste dut hobea zegoela. Lehen egindako marka batzuk badaude, hausten ez direnak. Mindegiaren 20 kanaerdikoa, Arriak ere badauka beste bat, oinbitakoa ere nahiko marka ona dago, Mendizabalek kanatakoak ere hor dauzka... Marka horiek ez dira orain hausten, beraz nik uste dut orain dela 10-12 urte maila hobexeagoa zegoela, Larretxea-eta ere sasoirik onenean zeudenean.

Lehiaketa asko izaten al zen?

Ez. Orain gehiago izaten dira. Urrezko Aizkora dela, bakarka, binaka... Lehen Lehenengo Mailako txapelketa eta beste torneoren bat eta besterik ez zen izaten. Erakustaldiak hori bai, orain baino gehiago.

Apustuak ere gehiago izango ziren.

Bai, gehiago.

Erronka asko bota edo jasotakoa al zara?

Bai, 6-7 joko jokatu ditut. Etxebesteri jokatu nion, Arregirekin bi jokatu nituen, Erdozia eta Gorritirekin beste pare bat ere bai, Aierberekin ere jokatu nuen, Larretxearekin ere bai... baditut bai mordoxka



Joxe Ugarteburu 1972. urtean aitak lagunduta entrenatzen. Inozenzio aita ere kirolaria zen, xabalina jaurtiketan ibili zen. "Gerragatik ez balitz, jarraituko luke", esan du Joxek. Beste marka bat ere bazuen: Ormaiztegiko zubiaren zutabeen banka jarri eta barria, zubiaren alde batetik bestera botatzen zuen.

bat. Batzuk irabazi besteak galdu. Irabaziak gehiago direlakoan nago. Jokoa gauza gogorra da: egiteko garaian ustez erraz egiten da, irabazita bezala jotzen da, baina azkeneko egunerako estutzen... jokoa gogorra da. Baina badu bere poza. Jokozalea izan naiz. Orain gutxi egiten da, baina jokoak badu bere bizitasuna.

Gogoan duzun apustua?

Joxe Aierberekin egin nuen. Lan handia egin genuen, 16 oinbikotara eta nire ustetan

ondoena prestatutako jokoa ere huraxe izan zen. Toloan jokatu zen eta jende dezente joan zen. Aierbek egurrak oso gogorrak eraman zituen. Joko gogorra izan zen. 16 oinbiko, lan asko da, ia bi ordu aizkora.

Beste bat ere jokatu nuen, Larretxearekin. Larretxea gaztea zen eta egur baten abantaila eman nion. Lehenengo egurra berak lehenago ebaki zuen. Hala eta guztiz ere irabazi egin nion, baina golpe batez.

Beste batean ere, Azkoitiko pilotalekuan, Gorritiren eta Erdoziaren aurka, eta orduan ere golpe batengatik irabazi egin nuen. Tokatu zait bi joko golpe batengatik irabaztea. Hori suerte kontua da.

Zaletasun gehiago al zegoen?

Lehen gehiago zegoen, jende gehiago joaten zen aizkora ikustera. Hori asko aldatu da. Jende gazteak ez dauka horretarako afiziorik eta zaharrak aldian-aldian gutxiago dira. Lehen jende asko joaten zen erakustaldietara. Ni gaztetan gogoratzen naiz, aizkora hasi aurretik, jokoak ikustera joandakoa, eta dezente jende gehiago joaten zen, bai harri jasotzen, bai segan... Orain gazte gutxi joaten da, gehiena jende heldua ikusten da.

Entrenatzeko moduak ere aldatuko ziren.

Bai, gaur egun lehenengo mailan dabiltzanak entrenamendu bereziak egiten dituzte. Nik garbi esanda ez dut entrenamendu berezirik egin, lehenengo era samarrean ibili gara. Baina orain jendea medikuarekin eta entrenatzailearekin ibiltzen da. Gure garaitik hona asko aldatu da. Gainera nik uste lehen jan ere gehiegi egiten genuela eta entrenatu ere askotan gehitxo. Gehiegi entrenatuz gero gorputza nekatuta iristen da lehiaketa egunerak.



6 Etxebizitza Arbizon

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

TDH Lizarraga

Beasaindik 20 minutura

210 metro Etxebizitza + Lorategia

Bizitzera berehala sartzeko

PREZIOA: 273.000€ + BEZ

INFORMAZIOA eta SALMENTA
618 610 372
948 468 454

BEASAINGO HEZKUNTZA PUBLIKOA

MURUMENDI Eskola Publikoa



Mariarats, 1-3
20200 Beasain
Tfnoa.: 943 88 00 25
Faxa: 943 88 49 29

www.murumendi.org

LOINAZPE Institutu Publikoa



Igartza-Oleta, 14
20200 Beasain
Tfnoa.: 943 88 26 44
Faxa: 943 88 49 37

www.loinazpe.net

ALKARTASUNA LIZEOA Herri Ikastola



Foru, 8
20200 Beasain
Tfnoa.: 943 88 26 84
Faxa: 943 88 1871

www.alkartasunalizeoa.net

TXINDOKI - ALKARTASUNA Institutua



Ugartemendi, 6
20200 Beasain
Tfnoa.: 943 88 07 53
Faxa: 943 16 10 48

www.txindokialkartasuna.net



Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

GABONETAKO MENU BEREZIAK

ENKARGUZ

Mariskoa

Txangurro betea
Marisko salpikoia
Marisko krema

Fritoak

Urdaiazpikoz betetako
esparragoak
Ontto pudina

Txangurroa

Porru eta ganbak
Onttoen Voulabena

Ohizko platerak eta zuk eskatutako beste edozer

Garazi Lorenzo igerilaria: “200 metro estiloetan moldatzen naiz ondoen”

Neguko denboraldia hasi berritan harrapatu dugu Garazi Lorenzo igerilaria, bere bigarren etxea den Majori kiroldegian. 17 urte ditu, batxilergoan dabil. 200 metro estiloetan moldatzen da ondoen ordiziarra, okerren bizkar estiloan.

Udako denboraldia zer moduz joan zaizu?

Espero baino hobeto.

Aurten garaipenik lortu al duzu?

Ez, zaila dago Euskadi mailan eta Gipuzkoan ere gero eta zailagoa dago. Maila asko igo da azken urteetan. Ni ibiltzen naizen estiloetan behintzat bai.

Zein probatan aritzen zara?

Estiloetan eta bular estiloan ibiltzen naiz. Bular-igeriketan adibidez, Euskadikoak, Espainiako txapelketetan ibiltzen direnak dira. Domina irabaztea zaila da.

Zein izan da maila igotzeko arrazoia?

Gu izango gara gutxien entrenatzen dugunak. Beste igerilariek ordu gehiago sartzen dituzte eta gehiago entrenatzen dute. Hori nabariatu egiten da.



17 urte ditu Garazi Lorenzo ordiziar igerilariak.

Espainiako txapelketetan ere ibili izan zara.

Aurten ez naiz joan, iaz bai. Baina kontuak oso zailak daude. Mailaz igotzen joaten gara eta urtetik urtera ikusten badute gutxieneko denbora jende askok egin duela, markak jaitsi egiten dituzte. Beraz, gero eta zailagoa da gutxieneko denbora hori egitea. Espainiako txapelketetara, asko entrenatzen duen jendea joaten da, onak direnak.

Zuek beraz, entrenatzeko denbora gutxiarekin zabiltzate.

Aurten dezente ari naiz entrenatzen. Egutero bi ordu entrenatzen ditut, igerilekuan aurrera eta ateratzera. Normalean 5-6 kilometro egiten ditut.

Zein estilo gustatzen zaizu gehien?

Bular-igeriketa, baina igeri egiteko 200 metro estilo, estilo guztiak sartzen baitira. Okerren bizkar estiloan moldatzen naiz.

200 metroko luzera ere egokia da beraz zuretzat.

Bai, ez naiz abiadurako igerilaria. Iraupeneko-igerilaria naiz, ondo jasaten ditut me-

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



familia bakarreko adosatuak

ALTSASUN

- Aurrerakuntza domotikoak
- Sukalde hornitua
- 4 logela, garaje bikoitza eta lorategia.
- 1.º mailako materialak

319.000€tik (+ %7 BEZ)

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

608 17 77 75

ZUBARA Eraikuntzak, S.L. Etxe-Alai etxea 20269 ABALTZISKETA 943 65 34 93

troak. 6 urtetik nabil igerian eta fondo gehiago daukat.

Noiz ikasi zenuen igeri?

3 edo 4 urterekin ikasi nuen igeri baina 6 urterekin hasi nintzen taldeak. 7 edo 8 urterekin, lehiatzen hasi nintzen.

Domina asko etxeratu al dituzu?

Ondo ibiltzen nintzen garaian, Espainiako txapelketetara iritsi nintzen. Baina hori beste mundu bat da. Ni baino gehiago entrenatzen duen jendea joaten da, baina esperientzia polita izaten da. Dominak lortzea oso zaila da. Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan irabaziak ditut dominak, lehenengo eta bigarren postuak.

Zein garai zen hura?

Orain dela 2 edo 3 urte. Uste dut orduan nengoela formarik onenean eta aprobe txatu egin genuen eta nahiko ondo atera zen. Urrezko dominak Espainiako minimak egiten nituenean eta beste urtetan, lehenengo hiruen artean ibiltzen nintzen. Orain atzeraxeago nabil, lehenengo hamarren artean. Orain maila absolutuan nabil eta gazteena izango naiz. Esperientzia gehiago dago-

“Nazioarteko jaialdian asko ikasten dugu”

Gabonetan, festa handia izaten da igerilariarentzat, nazioarteko torneoarekin.

Bai. Txandaka egiten dugu jaialdia, urte batean Ordizian eta bestea Donostian. Aurten Donostian egokitzen da. Goizean, guk bezalakook egiten dugu eta gutxieneko denbora batzuk jartzen dituzte. Hoberenak arratsaldean aritzen dira.

Berezia izaten al da naziorte mailako igerilariak bertatik bertara ikustea?

Aurten, bular-igeriketan, European podiuma egiten dutenak datoz, beraz, onenak. Igeriketa bizi dugunok oso ondo pasatzen dugu egun horretan. Ikasi ere asko ikasten da. Beroketa edo igeri nola egiten duten ikustea... poliketa eta aberasgarria izaten da.

en jende zaharragoa dabil.

Ondo gordeta izango dituzu beraz domina horiek.

Bai, bai. Baina hoberen gordeta daukadana da, Espainiako txapelketetara joan nintzen lehenengo urtean, Euskadiko selekzioarekin joan nintzen eta igerilekuan sartzeko pasaportea eta diploma eman ziguten eta dena ondo gordeta daukat.

Ilusioa egin zizun beraz Euskadiren izenean joatea.

Bai. Gainera ez nuen espero Euskadiko selekzio bezala joatea eta niri behintzat ilusioa egin zidan. Lagun berriak egin nituen.

Selekzioan, zure arerioak ezagutzeko aukera izango zenuen.

Bai. Arerioak igerilekuan bakarrik dira, kalean oso ondo konpontzen gara. Oso giro ona dago.

Gipuzkoan, nongo igerilariak dabilta ondoen?

Bidasoa, Fortuna, Tolosal-

dea, Oarsoaldea... onenak hor daude.

Emaitzak hobetzeko entrenamenduak gogortzeko asmorik ba al daukazu?

Bi urtean, pesak ere egiten nituen. Ordu bete pesak egiten nituen eta bi orduan igerilekuan aritzen nintzen. Bi egunetan, goizeko 7etatik 9etara ere entrenatu izan genuen. Baina oso-oso gogorra zen hura. Gustatuz gero, gustura joaten zara, baina goizetan, erdi lo etorri eta igerilekuan sartzea, mortala zen.

Baina zerbait nahi duenak...

Urte hartan probatu nuen horrelako entrenamenduekin eta ondo ibili nintzen. Baina probatu eta gehiago ez nuela egingo erabaki nuen.

Entrenatuz gero beraz, emaitzak iristen dira...

Entrenatuta, proposatzen duzuna lortzen duzu. Benetan nahi dena, ahalegina eginda, lortzen da.

Emaitzak beraz ez dira zuretzat garrantzitsuenak.

Ona bazara, entrenatu eta ahal duzun hoberena egingo duzu eta entrenamen-



Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...
era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

duak serio hartzen dira. Baina bestela, gehienon helburua, jende berria ezagutzea, beste lagun giro bat bilatzea da. Oso ondo pasatzen da, oso giro berezia da, beste mundu bat bezala da. Lehiaketetara kanpora joaten garenean jendea ezagutu egiten da eta beste talde bat bezala egiten da.

Igerian jarraitzeko motibazioa ere garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, oso. Bi urte nahikoa zailak pasatu ditut, estankatuta bezala, motibazioa asko jaisten da. Motibazioarekin gusturago ibiltzen da, beste-las kostatu egiten da.

Etorkizunari begira, zein helburu daukazu?

Batxilergoa bukatu eta kirolarekin lotutako ikasketekin jarraitzea daukat helburu. Igerilari bezala, Euskadiko txapelketetan dominaren bat lortzea daukat helburu.

2007an zer espero duzu?

Orain absolutoen mailan ariko naiz eta gazteena izango naiz. 23-24 urte esaten da, igerilariak gehien eman dezakeen urteak direla.

Zure burua non imajinatzen duzu urte batzuk barru?

Ordiziako taldeko entrena-

Itsasoaan ere bai

Igerilekuetan bakarrik egiten al duzue igeri?
Zeharkaldiak ere egiten ditugu, udako denboraldiaren amaieran. Donostian, Zaratzen, Getxon... izaten dira. Donostia-ra, talde bezala joaten gara, inongo helbururik gabe, ahalik eta ondoen egitea eta gozatzea. Denboraldi hasiera bezala, Donostian bahiari itzulita egiten da eta hori izaten da urteko lehenengo denboraldia.

Ezberdina izango da igerilakua eta itsasoa.
Oso ezberdina. Itsasoa ezberdintasuna nabaritzen da, baina baita igerilekua 50 metrokoa denean ere.

50 metrokoa luzea egiten al da?
Oso. Ohituz gero, hobeto moldatzen naiz 50ekoan.

Eta itsasoa?
Olatuen artean egiten diren 'S' guztiak... azkenean diren baino metro gehiago egiten dira. Ezberdina da. Ez dut esango hori bea ala okerragoa den. Gu ez gaude ohituta itsasoaan egitea, baina hala ere ondo.



tzaile izatea gustatuko litzaidake eta umeei igerian erakustea, nire esperientzia azalduz.

Igerilarietan, zein da zure idoloa?

Ian Thorpe. Orain erretiratu egin da baina...

Ia gorputz osoa hartzen duen igerilarien jantzi berezi horrekin azkarrago egiten al da igeri?

Espainiak gutxieneko denborak egiten nituenean, jantzen nuen. Azkarrago joaten dela esaten dute baina

hori buruko kontua da.

Arraro ere sentituko da...

Bai, lehenengo aldiz jantzi-takoan, uretan arropak jantzita sartuko bazina bezala da. Baina behin ohituta beste bainujantzia bezalakoa da.

Asegururik konfiantzaz

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: **943 88 86 20**
Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxa: **943 88 91 18**
LAZKAO



ASEPLAN S.L.

A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



kutxa



FEWM3FEWM3FEWM3FEWM3FEWM3FEWM3FEWM3

ARGÍ
OPTIKA

zorionak
urteberri on

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

BVLGARI *Salvatore Ferragamo* EXTĚ ROMEO GIGLI

FEWM3

reklone




%30

TRUK
moda eta osagaiak

Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545

reklone

%30 %30 %30 %30 %30 %30 %30 %30 %30 %30

Ordiziako Haur Txokoa, haur iritsi berrien harrera lekua

Aurten bigarren urtea dute Ordizian, beste herrialdeetatik Ordiziara datozen haur etorri berriei harrera egin eta gure herrira egokitzen laguntzen dietela. Jolasaren eta aisialdi ekintzen bitartez, eskolaz kanpoko euskararen erabilera bultzatzea du helburu Ordiziako Milagrosako Haur Txokoak, bai eta euskararekiko jarrera positibo eta aktiboa bultzatzea ere.

Lehen Hezkuntzako 1, 2, eta 3. mailetako haurrak, 6eta 8 urteko artekoak biltzen dira bertan. Momentuan 10 haur dabilta, baina oraindik ere gehitzen ari da kopuru hori. "Orain beste bi haur ere iritsi dira eta zain gaude n oiz etorriko diren", dio Ainhoa Ibañez Haur Txokoko begiraleak. Errumania, Argentina, Txile eta Dominikar Errepublikako haurrak dabilta.

Ordiziako Euskara Bizi-berritzeko Planaren barruko ekimena da Haur Txokoa. Hitzaro Euskara Elkartek kudeatzen du. Ainhoa Ibañezek Haur Txokoaren funtzionamendua azaldu digu: "Urdaneta eta Jakintza eskolara iristen diren haurrak Haur Txokora bideratzen ditugu. Bertan astean bitan,



Goian, Julieta argentinarra, Javiera txiletarra, Daniela txiletarra, Rober errumaniarra, Ainhoa begiralea, Julenny Errepublika Dominikarrekoa. Bebean, Anfi Errepublika Dominikarrekoa, Francisco argentinarra eta Alex errumaniarra.

astearteetan eta ostegunetan, arratsaldeko 5etatik 6,30etara Milagrosan biltzen gara. Lagungarria zaie jolasaren bidez, euskara ikasi eta gure kulturaren barneratzeko. Gustuko zerbait bezala hartzen dute. Horretaz gain, harremanetarako lekua ere bada".

Aurrerago ekintza bereziak egiteko asmoa daukate

Haur Txokoan. "Oraindik ez gara hasi baina taldea finkatzen denean, irteerak egiteko asmoa badaukagu. Ordizia ezagutzeko adibidez. Liburutegia non dagoen, plaza...", zehaztu du Ainhoa Ibañezek.

Gurasoak ere gustura daude. Beste herri batera etorri, beste hizkuntza bat... horrek gogorra izan behar

du. Eskolan ere zaila egiten zaie beste hizkuntza batean ikastea".

Haur Txoko irekia

Urtariletik aurrera, Ordizia bertako haurrek ere izango dute Haur Txokora joateko aukera. "Haur Txoko irekia izango da, batetik iaz Haur Txokoan ibili zirenak eta Ordizia bertako haurrek

Bordatuak eta arropa konponketak

Oriamendi, 19
943 16 23 84
BEASAIN

Labores Otea

Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna
Gai hauen ikastaroak ere ematen dira

otea@laboresotea.com
www.laboresotea.com

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu gustioi!

Aranburu

OINETAKOAK

943 880 127 Kale Nagusia, 36 BEASAIN

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



izango dute parte hartzeko aukera. Martxotik aurrera Hitarok antolatutako Txatxilipurdi ekintza ere egoten da eta horra ere bideratuko dira zenbait haur”.

Haur Txokoko matrikula 7 euro kostatzen da, baina gizarte laguntza jasotzen duten familietako haurrak kuota ordaintzetik salbuestita geratzen dira. Egoera hau Ordiziako Udaleko Gizarte Ongizate sailak luzatutako agiri bidez egiaztatutako beharko da. Hitaroko bazkideen seme-alabek, %20 gutxiago ordainduko dute matrikula, hau da, 5,6 euro.

“Olentzero oso polita da”

Forma ezberdinetako koltxonetekin nahikoa jolas egin ondoren, mahaiaren bueltan eseri ziren ordiziar berriak. Olentzeroa margotzea zuten hurrengo lana.

Ondo baino hobeto dakite nor den Olentzero, nahiz eta beraien herrialdean ez den ikazkin txapel-dunik. Errumaniako Roberrek, Olentzeroren kantua goitik behera abestu digu. “Errumanian, Santa Klaus, Moskleton esaten diogu, San Nikolas eta Errege Magoak dira opariak ekartzen dituztenak”, dio Roberrek. 8 urte bete berriak ditu Roberrek eta honela gogoratzen ditu bere Errumaniako azkeneko Gabonak: “6 urte nituenean, Gabonetan, belaurerainoko elurra zegoen”.

Opariak eskatzeko, bi bide erabiltzen dituzte Errumanian Roberrek kontatu digunez. “Batzutan eskutitza idazten diegu eta beste batzuetan berari esaten diogu. Pelikuletan bezala, bere gaínean eseritzen gara eta eskatu egiten diogu. Batzutan ekartzen du



Rober, Alex, Francisco, Ainhoa eta Daniela beraien herrietako Gabonen berri kontatzen.

nik eskatutakoa eta beste batzuetan beste zerbait”. Hori bai, gaizki portatzen denari, ikatza edo hariak ekartzen dizkiote.

Argentinan eta Txilen ez da elurrik izaten gabonetan, uda izaten baita. Julieta argentinarrak kontatu duenez, Bizar Zurik eta Errege Magoek ekartzen dituzte opariak Argentinan, Txilen bezala. “Arropa, zapatak, panpinak, barby... oparitzen dituzte”, dio Ja-

viera txiletarrak. Jan berriz, honakoa egiten omen dute: fideoa, arroza, zopa, letxuga, tomatea...

Talde osoko argazkia atera ondoren, agurtu ggenituen ordiziar berriak. Eta errumanieraz esaten den bezala, ‘Craciun Fericit si un An Nou Fericit!’ edo ‘Hristos s-a Nascut si Anul Nou Fericit’. Alegia, Zorionak eta Urte Berrion guztioi!

IKASTAROAK
KOADROAK
OPARIAK
OSAGARRIAK

MAIDDART

Elosegi 22 - LAZKAO - 943 087 633


XERLO

ile-apaindegi mistoa solarium bertikala

Joan Iturralde, 5-7 (solairu artea) BEASAIN T 943 161 105

Goierritarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info



Ordizia

Urruñako eta Ziburuko ikastolen aldeko jaialdiak

Azken 9 urteotan bezala, aurten ere, Goierriko Ikastolek, Urruñako eta Ziburuko ikastolen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte abenduan, dirulaguntza eta babes eskaintzeko helburuz.

Aurten, bi ekitaldi prestatu dituzte antolatzaileek.

Abenduak 16, larunbata:

Abenduaren 16an, Ordiziako kaleetan, iluntzeko 7,30etan, euskal kantu poteoa egingo da Kuxkuxtu txarangarekin. Ondoren, bertso afaria izango da Jakintza ikastolan, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsolariekin.

Abenduak 30, larunbata:

Txikiaren txanda izango da abenduaren 30ean. Arratsaldeko 4,30etan, Pirritx eta Porrotx pailazoaren ikuskizun berria ikusteko aukera izango baita, Majori Kiroldegian. 'Mari Motots' da pailazoek prestatu duten azken lana. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai ondoko lekuetan: Ordiziako, Lazkaoako eta Beasaingo ikastolan; Ordiziako Kultur Etxean; eta Beasainen, Lazkaron, Zaldibian eta Seguran, ohiko lekuetan.



zuhaizki
S A
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurritan.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Pottoka
K A F E T E G I A

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

TOLARE



SAGARDEGIA

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak

Filtroak, olioak, engrasea

Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

VALENCIAGA
INMOBILIARIA-AGENTZIA

943 086 579

Nafarroa etorbidea, 3
BEASAIN
www.valenciaga.es

Eguberri
jai zoriontsuak
igaro ditzazuen
opa dizuegu

Urte Berri on!



MIRENTXU

*Gabon
zoriontsuak
denoi!*

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO APAINGARRIAK
- OPARIAK

**MONT
BLANC**



Kale Nagusia, 1 Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 14 57 ☎ 943 88 04 55
BEASAIN



Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasaingo erdigunean, berritutako etxebizitza salgai. Sukaldea, bi logela, egongela eta komun bat dituen. Garajea aukeran. 645705287.

Ormaiztegin, duplexa salgai. 2002koa, 102 m², garajea, trastelekua eta igogailuduna. 618246465.

Beasainen, etxebizitza salgai. 943027073 - 680238512.

Seguran, etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, 27 m²-ko garajea eta 18 m²-ko trastelekua. 639962850.

Lazkaon etxebizitza paregabea salgai Gurutze kalea 1ean. Herri erdian. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta balkoi handi bat. Bista paregabeak. 2 igogailu. Interesadunen deitu 670588470 telefonora.

errentan eman

Ezkarain, apartamentua alokatzen da, urte osoan edo denboraldi baterako. 678344604.

Ordizian, logela bateko apartamentua alokatzen da, Filipineta kalean. 635758491.

errentan hartu

Beasain, Ordizia edo Lazkaon, etxebizitza alokairuan hartuko nuke. 635746081.

Beasainen, alokatzeko pisu bila gailitza. 649330879 - 605761344.

logela errentan

Beasainen, pisu bateko gela bat alokatzen da. Premiazkoa. 676713239.

GARAJEAK

salgai

Seguran garajea salgai. 25 metro. 670975333.

LOKALAK


salgai

Beasaingo erdigunean, etxebizitzatarako egokitutako etxe behea salgai, edozein jardueratarako. 686062963.

ALTZAGA



**Bi etxebizitzako etxea
Promotorearen zuzeneko salmenta
943 857 354**



© 943 88 40 56
J.M. Iturrioz, z/g
BEASAIN

© 943 65 55 77
Nafarroa Etorb., 10
TOLOSA

apaindura-pinturak • apaindurak • eskulanak

BESTELAKOAK

salgai

Kanpoko estufa salgai. Ter-
razetan, tabernetan... erabil-
tzekoa, estreinatua gabe.
685720279.

Sutarako pago egurra salgai.
690767513.

Sutarako pago egur lehorra
salgai. 615755762. Etxera en-
tregatzen da.

Ura berotzeko eta berogai-
luntzak balio duen galdara
salgai. 650017295.

Altzariak salgai. 4 ateko ar-
maria (1,90 metro zabalean
eta 2 metro altueran) eta
egongelako 2 mahai (110 x 50
bat, eta 40 x 40 bestea) salgai.
Prezio interesgarria. 20:00eta-
tik aurrera deitu. 943882760.

IBILGAILUAK

salgai

Freelander salgai. Berria, bi
urtekoa. Sei hilabeteko lante-
giko bermea dauka. Gehiga-
rriekin. 685752424.

Ford Mondeo 1.8 TD salgai.
1997. urtekoa. Abs, aire egoki-
tua. Merke. 670975333.

Renault Trafic furgoneta sal-
gai. Combi 100 DCI, 100 zal-
di, 140.000 kilometro, 4 urte
eta lotarako prestatuta.
13.000 euro. 943883592.

Volkswagen Caravelle, fur-
goneta salgai, NA-AD, 8 eser-
lekutakoa eta 2400 diesela.
600266928.

LANA

eskaerak

Garbiketak egiteko pertsona
bat behar da asteartetik larun-
batera. 607365743.

Zerbitzari euskalduna be-
har da sagardotegi batean, os-
tegun, ostiral eta larunbatetan.
607365743.

Mutil gaztea behar da Bea-
saingo aroztegi batean lan egi-
teko. 676615361.

Kamarera behar da Beasai-
nen eguerdietarako astelehe-
netik ostiralera. 943889252.

**Goierriko okindegi-kafete-
gi** batean lan egiteko pertsona
euskalduna behar da. Interesa-
tuek deitu 943885500 telefo-
no zenbakira goizeko 8:00ak
eta 14:00ak bitartean.

Zerbitzaria behar da astebe-
rutetan jatetxe batean lan egi-
teko. 606503777.

Emakume euskalduna be-
har da Legazpin umeak zaindu
eta etxeko lanak egiteko.
649722168.

Goierriko okindegi batera-
ko langile bat behar da. Lan
iraunkorra eskaintzen da. Inte-
resatuek deitu 943885500 te-
lefono goizeko 8ak eta
14:00ak bitartean.

Ingeniari mekanikoak be-
har dira eskolak emateko.
urrats@telefonica.net.

Ingeniari mekanikoak be-
har dira eskolak emateko.
urrats@telefonica.net.

Zerbitzaria behar da
Ormaiztegin. 635717992.

eskaintzak

Adineko pertsonak zaindu
edo garbiketan lan egingo nu-
ke. Lan ez kualifikatuak. Ibilgai-
luarekin. 678781985.

Konponketak. Informatikan
titulatuak. Ordenagailu konpon-
ketak egiten ditu. Oso merke.
676986446.

Lazkaoko emakume bat la-
nerako prest dago, erreferentzi
onekin. Harremanetarako tele-
fona: 657797794.

ANIMALIAK

salgai

Artzain txakur alemaniarra-
ren kumeak salgai.
650499875.

opari

Txakurkumea oparitzen da.
615788542.



ARANDIA

Garajea

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Ikaskide

irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak

prestatzeko aukera (KET,
PET, First Certificate)

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Ikasketa teknikak
- ✓ Arreta pertsonalizatua
- ✓ Talde txikiak

2006-2007 IKASTURTEA

INFORMATIKA

- ✓ Mekanografia
- ✓ Office
- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua




ANZIZAR, S. A.



Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Gabiriarrak 1945. urtean

Ander Iurritak utzi digun argazkian Gabiriako neska talde bat ageri da.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Angelita Oñatibia (Etxeberribizkai), Maria Luisa Iruin (Torre), Sebastiana Azarola (Arane Haundi) eta Joxepa Oria (Gabirizar Txiki).

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrin

Lurrindegia eta opari gaiak

LEIAR LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

biok kudeaketa
zerbitzuak fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

AMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

over Urraki

Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com




Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak
Pintura
Teilatutak
Tximiniak
...





ITOIZ

Artisautza Produktuak eta Gazte Moda

San Inazio 6 Beasain 943 02 75 20

